


INDALECIO BIZCARRONDO

BILINTX

**BERTSO TA  
LAN GUZIAK**



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

JB-889

J. P. L. L. L.

Brant

Dec. 1962

9489

**BILINTX**  
**BERTSO TA LAN GUZIAK**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**- 12 -**

---

**COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María 2 - Tolosa**

**Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala S. J.**

**Colegio de San Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián  
(Guipúzcoa - España)**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 180 peseta.**

**Atzerrian: 275 peseta.**

**Ongilleak: 350 >**

**Ale bakarra: 25 >**

INDALECIO BIZCARRONDO

BILINTX

**BERTSO TA LAN GUZIAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 272—1962  
N.º DE REGISTRO S.S. 6.985—1961

---

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRAFICOS «ICMAROPENA»  
ZARAUZ (GUIPUZCOA - ESPAÑA)

# ARKIBIDEA

## Orriak

### "BILINTX" - INDALEZIO BIZCARRONDO

UREÑA ... ..	11
ITZ-AURREA ... ..	23
Galop Infernal: Lagundika Fraternal-eko ga- layak beren damari ... ..	29
Ziririkuak ... ..	31
Kontzezirentzat ... ..	35
Zaldi baten bitza ... ..	40
Pozez ta bildurak ... ..	46
Juramentua ... ..	51
Loriak ... ..	56
¡Maita nazazu arren! ... ..	63
Beti zutzaz pensatzen ... ..	66
¡Ja jail! ... ..	70
Zenbait damaren esker txarra ... ..	73
Juana Bixenta Olabe ... ..	77
Dama ta galaya ... ..	85
Kanta ... ..	90
Somaketa ... ..	91

Gaztetan jarriyak dama bati ... ..	94
Neskatxa bati mutil batek jarriak ... ..	97
¡Izazu nitzaz kupirala! ... ..	104
“Al Cefiro” ... ..	110
Dolores'i ... ..	114
Bertsolariyen gudua ... ..	116
Potajiarena ... ..	123
Orentzaro ... ..	127
Kontua ... ..	129
Pobriaren suertia ... ..	131
Biyotz eritua ... ..	133
Kanpuan da ... ..	139
Iru erregeak ... ..	142
Nik au pensatu nuen ... ..	143
Begirozute pikadoriak ... ..	144
Zortziko ... ..	146
Zaldun gazte ... ..	147
Arotz bati ziyoten ... ..	148
Penetan daramazkit ... ..	150
Konfesorlagana ... ..	152
Aspaldiyan Joxepa ... ..	153
<b>Páginas inéditas en prosa</b> ... ..	156
Domingo Kanpaña ... ..	166
Pepe Artola: Indalecio Bizcarrondo (Bilintx) ...	171
Bilintxen esaera bat ... ..	175



Arguitazun aundico  
juela garistiya,  
nere osanuna ta  
nere egurzuya;  
laxta ere zu cera  
maitecho estiya,  
mundu ontaco nere  
desio gurtiya

—  
Ecin sinago dala  
da chit seguruba,  
zu gancaco dacatan  
naxtazun juruba;  
beti daureat zu gatic  
nere aingueruba,  
sentitzen biyotza ta  
pentratzen buruba.

Saxletan jarriyuc.

Dama luti.

Yshilic gorde curren  
aseo dira penae;  
nere biyetz gathuan  
zu gatic dauddenae;  
biazuna bariore .  
mincatsago denae,  
banan zue nay ezquero  
goza litorquenaec.

—  
Daurcatan pena oyec  
ishilic gorde ta,  
ret biyurtuco dira  
zue nay raxu eta;  
bertatic jarrico nair  
contentuz bete ta,  
neria iratera  
conforma zaita ta.

Ez nair mustill ederra,  
i au lana, au lana!  
ez nair al'eratsure,  
i maitecho lartana!!  
Banan biyetz bat bu det  
oberic ez dana,  
beti ~~amoriyoz~~ zu ganaco  
amoriyoz dana.

—  
Austien esqueintren dirut  
gurtirco uabe,  
i arren eguin narazue  
zuraren jabe!!  
bestela penaz ill ta  
laxter nair lurrax bi,  
bara ni ecin tici  
niteque zu gabe.

## B I L I N T X

### INDALECIO BIZCARRONDO UREÑA

*Bilintxen jatorria auxe izan zan: Aitona, aitaren aldetik, Berastegi'tarra; Rafael zun izena, Amona, Juana Bautista de Amunarriz, Tolosarra. Aita ere, Jose, Tolosarra zan.*

*Beste aitona, berriz, andaluza zan: Dionisio Ureña, Ayamonte'n (Huelva) 1743 urtean ja-  
yoa. Ez da paperetan ageri zer bizimodu zun;  
ezta ere nola etorri zan. 1785 urteko Maya-  
tzaren 19'an San Bizenteko elizan ezkondu  
zan; andregaya, Manuela Antonia Arbizua,  
Donostiarra zan. Alargundu ta 1792 urteko  
Apirillaren 22'an berriro ezkondu zan San  
Bizenten; andregaya Donostiarra zun: Gerar-  
da Zamora. Berriz alargundu ta berriz ere  
ezkondu egin zan 1796 urteko Azaroaren 3'an,  
San Bizenten oraingoan ere; ta ontan ere an-  
dregaya Donostiarra, Maria Josefa de Alana.  
1797'urteko Azaroaren lenengo egunean, ala-  
ba bat izan zuten. San Bizenten batayatu zu-  
ten. Joakina Santos jarri zioten izena. Onek  
ekarri bear zun mundura Bilintx.*

*Bilintxen gurasoak, Jose ta Joakina, 1819  
urteko Garagarrillaren 25'an ezkondu ziran,  
San Bizenteko elizan. Emengo paperak diote-*

nez, bost seme alaba izan zituzten: Jose Ramon (1820-IV-16), Teresa Martina (1821-IX-5), Josefa Hilaria Petra (1825-IX-17), Josefa Franziska Zipriana (25-IX-1827), ta danetan gazteena, Bilintx, 1831 urteko Apirillaren 30'an eguerdiko amabitan jayoa.

Urrengo egunean batayatu zuten, San Bizenteko elizan. Jarritako izenak: Guillermo Joakin Indalezio. Aita ta ama pontekoak Guillermo Mansaso ta Maria Joakina de Huici izan ziran. Beraz, auen izenak jarri zizkaten aurretik, bañan irugarrena zan betà betiko gelditu bear zitzayona.

Aitona andaluzak etzun billoba au ezagutu. Bederatzi illabete ziran illa zala (1830-VII-20), 87 urteekin. (1).

Asieratik esan nai degu iñondik ere ezin somatu izan degula "Bilintx" izengoiti ori nundik ote zun.

Aurra zala, erori egin zan ta arpegia zeero itxura galduta gelditu zitzayon (2). Orregatik "Moko" edo "Indalezio Moko" esaten zioten.

Geroago zezen batek adarra iztarretik sartu ta oso gaixo utzi zun. Zenbait astebeze oyezan pasa bear izan zitun. (3)

Arotza izan zan. Arzuaga zeritzayon baten aroztegian ibilli zan lanean. Laneko bi lagun izenak badakizkigu: Domingo Kanpaña famatua ta Erramun "Moko". Beraz, onek Bilintxen izengoiti ber-bera zun.

Argitasun auek Pepe Artolari zor dizkiogu. Onek Bilintxen gertaera batzuk idatzita utzi dizkigu. Liburu onen bukaeran jarri di-

---

(1) Orain arteko berri danak San Bizenteko paperetatik artuak ditugu. Lan ori egin diguna Pepe Artola'ren billoba da, Juan Maria Artola. Milla esker.

(2) J. Manterola: Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878.

(3) J. Manterola: "Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

tugu. Ez dira asko, bañan mesede ederra egi-  
ten dute Bilintzen alderdi danak ezagutu-araz-  
teko.

Bestela ere badakizkigu beste gertaera ba-  
tzuk. Danen aurretik kontatuko deguna oso  
ezaguna da, batez ere Donostian. Bañan emen  
jarriko degu "Euskal-Erria" aldizkarian 1885  
urtean, beraz Bilintx il da amar urte bete ba-  
ño len, dagon bezelaxe. Ala dio:

"Bein batean kalean zijoala Bilintx go-  
goangarria, igaro zan bere aurretik gizon bat  
zerbait mozkortua, eta esan dio:

—Adio Bilintx.

Eta Bilintzek, itzetik ortzera, erantzun  
zion:

—Adio Balantx."

Aldizkari onek berak (T. 41, 1899). Bilin-  
tzen beste ateraldi au kontatzen digu:

"Buru soil edo illegabekoa zuen antzera, la-  
gunen batek, far egin nayeian, kentzen omen  
dio txapela esanaz:

—¡Oi, oi, Indalezio, ire buruak gazta zirur-  
rik, motell!

—¡Zergatik?

—Legun leguna ta zuriya dagoelako.

—Eta ireak, berriz, illerri edo kanposantua.

—¡Zergatik?

—Illez betea dagoelako."

Beste bein, nagusiak bialdu omen zitun  
Bilintx ta beste langille bat Ixturin ta Mira-  
concha tarteko "palaziyo" batera, "mueble"  
batzuk eramatera. Garai artan, inguru artako  
Muntto baserrian-eta, sagardotegia izaten  
zan. Batak besteari esan zion: "Aizak, sagar-  
doa eran bear diagu. Ara, palaziyo ontan za-  
kurra izaten dek, bai, ta egin zagun papera  
zakurra zaunkaka irten ta guk alde egin bear  
izan diagula". Alaxe egin zuten: mueble, gur-  
di ta guzi bertan utzi ta sagardotegira. (4)

---

(4) Dunixi jaunak (Dionisio Azcue) kontatua.

Noiz ez dakigula, Teatro zarreko konserje egin zuten. Bizi tokia ere an bertan zun. (5) Jendeari "refreskoak", ura "eskonfakin" ta orrelakoak saltzen aritzen zan. Artarako dendatxo bat-edo an bertan omen zun. (6)

Bein zortzi milla errial lapurtu zizkioten. Manterolak ala dio: "de su establecimiento", ta dendatxo ontatik eramango zioten diru pillari. (7)

Konserje izanik ere, etzion arotz-lanari laga. Bein Teatro zarraren atarian "trintxa" deritzayon erreminta zorrozten arà zan. Egun artan komeria edo zer edo zer bazan Teatroan. Mutil bat alderatu ta esan zion: "Aizu, Bilintx, sartu nazu". Ta Bilintxek: "Bai, zorroztean". Alegia, zorrozutakoan trintxa sartuko ziola. (8)

Bere emaztea Nikolasa Erquicia Macazaga izan zan. San Bizenteko paperak Azkoitiarra zala diote. 1846 edo 1847 urtean jayo zan. 1932 urtean il zan ta oraindik ere asko daude Donostian artaz oroitzen diranak. Oso emakume prestua omen zan.

Bañan ez San Bizenten ta ez Santa Marin, ez degu ezkontzako paperik arkitu. Bearbada, andregaya Azkoitikoa izanik, emen ezkonduko zirala ta abixua eman nion Azkoitiko erretoari. Badakit ango paperak aztertu ditula bañan ez du ez jayotzako ta ez ezkontzako paperik arkitu. Lenengo semea 1870 urtean izan zuten, amak 24 urte zituala, ta 1869 urtean-edo, ezkonduko ziran.

Bi seme ta alaba bat izan zituzten: Benito (1870-I-12), Pio Franzisko (1871-VII-11) ta Maria Ana Hilaria (1874-VII-26). (9)

---

(5) Makiña bat tokitan ageri dana.

(6) Joakin Muñoz-Baroja jaunak esana.

(7) J. Manterola: "Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

(8) Dunixi'k kontatua.

(9) Santa Mariko paperetatik.

Esan degun urtean ezkondu baziran —askoz lenago ezin ezkonduko ziran beintzat— Bilintx berandu xamar ezkondu zan, 38 bat urteekin. Beraz egia dirudi erriak diona: alegia, itxusia izanik (txikitan erori zan ezkeroztik, esan degunez), neskatxak etzutela begi onez artzen. Au ala izanik, Loyolako Ja-jai arek egiazkoa izan bear du, ta bere amore kontuak kontu ugariak izan bear dute.

Bilintxen amoriozko bertsoak zein urtetan jarriak diran, beti ez bañan batzutan badakigu. Auei begiratu ta 1857, 1862 ta 1868 urtean jarriak dirala ikusten degu. 1868 urteko ori ez ezik, gañerakoak Nikolasak amaika eta ama-sei urte zituala jarriak daude. Beraz, ez dirudite arentzat jarriak diranik, ta alderdi ontatik ere egitzat ar dezakegu erriaren esana.

1868 urteko bertso oyetaz Manterola'k esaten digu Nikolasa'rentzat jarriak zitula. Garai ontan bazitun onek ogei ta bi bat urte. Azkeneko bertsoan dio lau bat urte bazirala dama ori "bere oroitzan faltatu gabe zegola gau ta egun".

Au ta beste bat edo bi ez ezik, bere amoriozko kanta danak badute barrenen alako samintasun bat: galayak damari maitatu bai, bañan damak galayari kasorik ere egiten ez diola. Zea onek ere egia dala ematen du. Itz batean esateko, bere amoriozko kantetan Bilintxek bere biotza zabal zabalik jartzen digu.

Manterola, Benito Jamar, Antonio Peña y Goñi ta Mourlane Michelena'k Bilintxen gauza asko kontatu dizkigute (10):

---

(10) J. Manterola: "Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

Antonio Peña y Goñi: "Euskalerrria, 1885, 433 orrialdea". Lan ontan esaten dunez, badu jaun onek Bilintxen bizitzaz beste lan bat "El Imparcial" zeritzayon Madriko periodikuan, bañan ez degu esku-ratu al izan.

*Esterlines* kalean bazan garai artan "Cafe Oriental" zioten bat. "Heladuak" egiten sona aundikoa zan. Inor ez edo jende gutxi egoten zan orduetan, literatura-zale batzuk biltzen ziran ara. Ayetako bat Bilintx. Onek bere bertsoak esaten zitun. Antxe ezagutu zitun Campoamor olerkariaren Doloras izendatutako itz-neurtuak. Izugarri gustatu ta alakorik asmatu nai izan zun, bañan ezin. Etzan ori bere bidea.

Bañan Benito Jamar dalako orrek irakurri zizkion ordun Becker'en Rimas ta Aguilera'ren Elegías. Bilintxek entzun omen zitun arrituta, bere anima olerkariaren animarekin zearo bat eginda.

Beste bein, kayeko taberna batean, Benito Jamar onek irakurri zizkion erderara itzultitako Heine'ren zenbait bertso. Bilintxek entzun zitun biotza saltoka ari zitzayola: ¡Ede-rrrraa!..." esaten zun, edo bestela txapela eramaten zun malkoz bustitako bere begietara. Ta Jamar'ek —au berriz Bilintx ala ikusiaz arrituta— aldamenekoari esaten zion: "Ikusi al dek arpegi luze orreri?..."

Urrutiko ibillaldien kontaerak ere gustokoak zitun. Maiz aitatzen zitun Mac-Clure, Hue, ta Livingstone ibiltzale ospetsuak. Ta urrutiko tokien irudiak gorde egiten zitun: Tibet, Lago Victoria,...

Soraluze'k, gau batean, izarren izenak esaten ari omen zitzayon. Bilintx arrituta zegon zeruaren edertasunari begira. Ta alako batean esan zun: "Auts ariña naiz".

Bein batean esan zion Jamar oni: "Ni ez nazu maixua. Bertsoak antolatzen ditut udaz-

---

Benito Jamar: "Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, San Sebastián, 1896, Prólogo de Benito Jamar".

Mourlane Michelena: La poesía vasca en el siglo XIX, Primer Congreso de Estudios Vascos, Oñate, 1918.

keneko arratsaldetan kupelako lenengo zizarrarekin kantatzeko modukoak."

Erdera poliki xamar zekien, bañan etzun izan bear eskola aundirikan. Arratsalde batean esaten omen zun: "Iya ez baidakit irakurtzen. Bañan irakurri egiten det irakurri bear dana".

Bere suerte txarragatik esaten omen zun: "Bizitzak makillazoka erabilli nau, asto biyurri baten gisan". Ori zionean, etzekien giza-joak zer gurutz-bide ikusteko zegon.

Bañan au dana ala izanik ere, Bilintx bernetako bertsolaria al zan? Au da: bertsoak jarri ez ezik, bat batean botatzen ere ba al zekin? Bayetz erantzun bear degu. Ta ona emen ezaugarri batzuk:

Domingo Kanpañari botatako bertso famatu ura bat bateko izan zala, ongi asko dakigu. Dunixi jaunaren lan baten bidez. Lan ori liburu ontan azaltzen da, azkeneko orrialdeetan.

Liburu ontan estrañako aldiz agertzen diran bertso batzuetan, "Aspaldiyan Joxepa" deitzen diranetan, Bilintxek adierazten du Ondarrabi-ra bertsotara joan izan dala ta berriro ere bertsoetan aritzeko prest daukala bere burua. Bertso oyek ez dira "desapiyo" bat baikik.

Pepe Artola-k kontatzen digu Bilintx igande arratsalde batean Ernani-n bertsolari batekin elkartu, bertsoetan asi ta Bilintxek etorri aundia zuen ezkerre bereala menderatu zuela bertsolari ura. Gertaera au ere azkeneko orri-aldeetan arkituko du irakurleak.

Laugarren ezaugarria da Antonio Peña y Goñi jaunak kontatu diguna:

Garai artan, austerre egunarekin, merienda on bat egiten omen zan. Oitura alaxe zegon. Jateko danak edo geyenak beintzat, "mariskuak" izaten omen ziran: lanpernak, lapak,... ta zea luzetxo batzuk, "deitus" deitzen ziranak.

Ori dala ta 1860 urte inguruan, austerre



egun batean, Arsuaga Bilintxen laneko nagusiaren etxean meriendatzera bildu omen ziran Arsuaga bera, Ramon Emparanza, Jose Javier ta Policiano Serrano, Domingo Peña, Antonio Peña y Goñi, ta... Bilintx ta Domingo Kanpaña. "Paseo de Atocha-n" omen zegon Arsuagaren etxea.

Ari omen ziran jan da edan guztizko sa-soyea ta alako batean Kanpañak bertsoa bota omen dio Bilintxi, ziria sartuaz.

Kanpaña ori sekulakoa omen zan: aundia, gizona ta oso lotia. Bonbardinuaren jotzallea zan ta soñu-banda prozesioan edo kale-jiran kaleetan barrena jotzen zijoala ere, iya lo artu egiten omen zun. Bein "La Fraternal" zeri-tzayon lagun-artean "billar" dalako joku ortan ari zan. Makillazo bat jotzera zijoala txistua botatzeko arpegia beste aldera jira ta erdi lotan gelditu omen zan. Bañan ala ere, poliki-txo omen zekin bertsoan.

Ba, Kanpañaren ertso orrekin izugarri bertso-festa ederra asi omen zan Bilintx ta Kanpañaren artean.

Bilintx etorri aundikoa omen zan ta aren erantzuna errex, zorrotz ta tximista bezin bizkor sortzen zan.

Kanpañak berriz "manxo" xamar itzegiten omen zun ta asnasa ere soñu aundiz erabil-tzen zun.

Ikustekoa omen zan: Bata, Kanpaña, lodia, umore txar guzien ontzia balitz bezela; bestea, Bilintx, estu ta medarra, arpegi puskatutako deabrutxo baten antzekoa.

Orrela aritu ziran bertsoan, alkarri gorputzaren akatsak agertuaz ta itz txarrak erantsiaz, kupira gabe gaizki esaka, ayen lagunak ayen ateraldi ta xelebrekeriz parre algaraz ez-tanda egin bearrean ari ziran bitartean.

Beraz, Bilintx benetako bertsolaria zan. Ez du onek esan nai bere bertso danak bat batekoak izan ziranik. Bertsolariak batzuetan "jarrri" ta besteetan "bota" egiten dituzte ber-

tsoak. Orrela egin zun Bilintzek ere, eta bertsolarien artean leku eman bearrean arkitzen gera, eta ez alajaña bazterreko lekuren bat.

Bilintxen beste zea bat joku zalea izatea omen zan. Ez diru zalea zalako. Suerte utsezko jokuaq begitan artuak zitun. Nor gallen geratzea, ori omen zan Bilintzek jokuan nai zuena. Ez omen zun dirurik jokutzen, bañan kontrarioa azpiratzeko irrikitan egoten omen zan.

Tutea oso maite omen zun, batez ere iru lagun arteko tutea, garai artan "la pincheta" esaten zana. Durduri ta asarre ta bere onetatik aterea bezela jartzen omen zan batzuetan.

Gabino Iribas patxara aundiko gizona izan ta uraxe omen zan Bilintzek kartetan aritzeko nayago zuen laguna. Au kontatu diguna, Antonio Peña y Goñi ere, maiz aritu omen zan tutean Bilintzekin, bañan bera ere jokurako Bilintxen antzekoa izan ta askotan sesioa izaten zuten azkenerako. "Cafe de la Marina" zeritzayonean aritzen ziran ortan.

Bañan karlisten bigarrengo gerratea sortu zan. Donostian liberalak "Batallón de voluntarios" zeritzayona sortu zuten. Oik ziran erritik kanpora ibilli ez bañan etsaya ingurura etortzen bazan, ari gogor egiteko.

Bilintzek bereala eman zun bere izena. Laugarren konpañian sartu zuten (11).

Asieran karlisten partidak mendiz mendi ibiltzen ziran, Santa Cruz-eta buru zutela. Bañan pixkanaka batalloyak antolatu, Tolosa artu, ta 1875 urtean, itxas-bazterreko erri batzuk ez ezik Gipuzkoa guziko nagusi ziran.

1875 urteko Agorraren 28'an Donostia bonbardeatzen asi ziran. Kañoyak Arratsain mendia ren egalean zituzten. Gazteluan beti egoten zan bat edo bat begira jarrita, ta kañoyaren kea-edo ikustean, kanpayari eragiten zion,

---

(11) Diario de San Sebastián, 1876-VII-22 ta 23.

jendeak bere burua al zun tokian izkutatu zezan. Oraindik ere ageri da gazteluan kanpai ori zegon tokia. Kanpaya entzun ta granada erori artean, Bulebarra alde batetik bestera igarotzeko denbora izaten zan (12).

Bein batean kalean zijoan gizon bati granadak jo ta burua kendu zion. Burua bueltaka erori omen zan lurrera. Bestean, emakume bat astoarekin zijoala, kanpai-otsa entzun ta sartu egin zan ezkaratz batean. Granadak astoa jo ta zearo purrukatuta utzi omen zun (13).

Ori izan zan ia bost illabete buru Donostiaren biziera.

1876 urteko Ilbeltza etorri zan ta 20'an San Sebastian eguna, erriko patroya. Arratsaldearen asieran Bilintx etxean zegon, bere gelan ain zuzen ere (14). Manterola'k berriz dio (15) bere gelan, goizean, traje berri bat estrañatzeraz zijoala. Entzun ere izan degu bere burua meza nagusirako prestatzen ari zala. Seguruena izango da Diario de San Sebastián dalako orrek diona, arratsaldearen asieran gertatu zala. Ta ordua edozein izanda ere, bere gelan zegola beintzat, granada bat bertan erori ta anka biak zearo purrukatu zizkion.

Sei illabete bizi izan zan oraindik, oyea, miñez ta oñazez, esate baterako, eriotzaren zai.

Bitartean liberalak egundoko soldau-pilak gertu ta berreun bat milla gizon bota zituzten karlisten kontra. Auek jende gutxi ziran ainbesteri gogor egiteko. Otsaillaren 18'an alde egin zuten Donostiko ingurutik ta 28'an Don Carlos'ek bere "volveré" famatu ura esan ta izkutatu egin zan Arnegitik barrera.

---

(12) Zarrai entzuna.

(13) Zarrai entzuna.

(14) Diario de San Sebastián, 1876-I-21.

(15) J. Manterola: "Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

Pakea beraz etorria zan, bañan oyetik ta oñazen tartetik jasoko zun Bilintzek pakearen berria.

Uztaillaren 22'an Madriden euskal fueroak kentzeko agindua firmatu zan. Bilintx ordea egun artan bertan il zan goizeko lauretan 45 urteekin eta etzun ezagutu fuerorik gabeko Euskal-erririk (16).

Lur-ematea urrengo egunean izan zan. Illetako Meza zortzi t'erdietan Santa Mariko elizan. Gorputzari laguntzen, aideak, adiskideak, ta esandako batalloyaren buruzagi ta lagunak izan ziran. Baita ere gobernadore ta alkatea (17).

Meza bukatu ta gorputza Teatro zarraren parera irixtean, soñu-banda bat azaldu zan. Bere batalloyaren soñu-banda zan ta il-soñu bat joaz lagun egin zion gorputzari (18).

San Bartolomeko kanposantuan lur eman zioten. Andik amabi bat urtera oraingo Polloe-ko kanposantura ekarri zuten (19) ta orain ontan dago San Prudencio kalean 72'garrren illobian, bere emazte, bi seme ta erraña ta iru billoben gorputzen batera. Gu ara joan giñanean igartutako lore-mordoxka bat zegon arriaren gañean.

Ill-obiak goiko aldean Bilintxen irudia du ta beraxeago onako au dio: ¡Bilintx! / Donosti maite ontan zure / bertsoak entzun genituenok / esan genezake Jaunaren / miserikor-diak kantatzera / joan ziñan ezkeroztik / zerrua bera gozoagoa / izango dala.

\* \* \*

Bilintx il da gero, alargunari estanko bat eman zioten, bizimodua nolabait ere atera zezan. Teatro zarraren aurre aurrean zegon, ka-

(16) "Diario de San Sebastián", 1876-VII-22.

(17) "Diario de San Sebastián", 1876-VII-23.

(18) "Diario de San Sebastián", 1876-VII-23, ta Antonio Peña Goñi "El Día"-n (1931V-1) aitatu.

(19) Francisco López Alen: "Iconografía de Guipúzcoa", San Sebastián, 1898.

le nagusia ta Embeltrán kalearen kantoï kantoyean, gaur "Granja Urumea" dagon ortan.

1880 urtean "Juana Bixenta Olabe" inprentatu ta salgai jarri zun bere dendatxo ontan.

Seme zarrena, Benito, bularretik gaixotu ta 1898 urtean 28 urteekin il zan.

Beste semea, Pio, 1946 urteko Otsaillaren 16'an il zan, 73 urteekin. Oso ezaguna izan zan Donostian. Denbora asko Madridenten bizi izan zan. Baita bere ama ere. Orain Pio onen semeak bizi dira.

Alaba, Maria Ana Hilaria'k, ez dakigu zer bizimodu izan zun. Bere izenik azaltzea nai ez duen Donostiar zar batek, gertaera polit bat kontatu digu alaba onetzaz. Entzun genion bezela jarriko degu emen:

Tabuyo izan zan garai bateko sona aundi-ko kantaria. Errenteriarra zan.

Bein, Madridenten zala, lagun batzuekin bildu zan gau-festa batera. Lagunak atsegin zuten ta Tabuyo kanta kantari ari zan. Bilintxen kantak ere bai.

Gau txarra zegon: otza, euria, elurra,... Bañan jende geyegiz-edo tokia berotu ta leyoa idiki bear izan zuten aizea berritzeko. Kalea uts utsik zegon, bañan leyoa idiki zunak ikusi zun baikoi baten azpian emakume bat zegola geldi-geldi. Esan zien lagunai: "Ara, emakume bat dago or, dagon egualdirekin gure kantak aditzen".

Deitu ta galde egin zioten: "Bañan nolatan dezu kanturako orrenbesteko zaletasuna?"

Erantzun zuen: "Nere aita zanaren kantak kantatzen ari ziñaten da...".

Bilintxen alaba zan.

Alaxe kontatu zidan Donostiar zar arek ta nik galdetu nion: "Ta nundik dakizu ori edo nork kontatu dizu?"

Segituan erantzun zidan: "Tabuyo'tarrak berak, gure etxeko lagun aundiak bait ziran".

Joakin Muñoz-Baroja jaunak ere alako zer edo zer aditua du.

## I T Z - A U R R E A

*Bilintxen bertso bakoitza nun jarri jakiteko, argira ateratako urtea artuko degu giyaritzat. Batzuek Bilintxen denboran argitaratu ziran, ta zein urtetan atera ziran ere bada-kigu. Auek aurren lekuan datoz:*

- 1852: Galop infernal (Lagundika Fraternal-eko galayak beren damari). Zirik-rikuak.
- 1857: Kontzezirentzat
- 1860: Zaldi baten bizitza
- 1862: Pozez ta bildurrak
- 1862: Juramentua
- 1862: Loria
- 1862: ¡Maita nazazu arren!
- 1868: Beti zutzaz pentsatzen.

*Beste batzuek badakigu Bilintxen denboran argitaratu zirana, ez ordea zein urtetan. Auek bigarren lekuan datoz:*

¡Jai jai!  
Zenbait damaren esker txarra  
Juana Bixenta Olabe  
Dama ta galaya  
Izar argi bi falta dirala  
Somaketa

Aitatutako oyek, besterik gabe ere, nai-koak ziran egillearen izena goi-mallan jartzeko.

Bazan orduan Donostian Jose Manterola zeritzayon jaun bat. 1849 urteko Martxuaren 23'an jayoa zan. "Instituko"-ko maixua izan zan. Baita ere "Diario de San Sebastián" zeritzayonaren zuzendaria ta Kontzejuko liburutegiaren kontu egiten zuna. 1871 urtean, 22 bat urteekin, liburu bat atera zun: *Guía Manual Geográfico Descriptiva de la Provincia de Guipúzcoa*". Ezagun du ontan Euskalerriri zion maitasuna. Geroago bertso-bilduma egin zun. Liburu onek ere bilduma oni zor dio geyen geyena. 1877 urtean asi ta 1880 urte artean bere "Cancionero Vasco" atera zun ta 1880 urtean asiera eman zion "Euskal-Erria" aldizkariari. Euskal itz-neurtuen txapelketak ere berak asi zitun Gipuzkoan. 1894 urteko Otsaillaren 29'an il zan, 35 urteekin. 1902 urtean Donostiko kale bati bere izena eman zioten. Bai merezi ere. Itz batean esateko, bera degu euskaltzaletasunaren sortzallea.

Manterola ori bereala konturatu zan Bilintx etzala nornai. 1870 edo 1871 urtean Bilintxengana joan ta eskaka aritu zitayon arren ta arren bere bertsoak lagatzeko. Argitaratu nai zitun. (1)

Bañan Bilintxek bazun barrena sartuta seta txoro bat: bere lanak etzutela ezer balio. Esan omen zion bere samiañ-aldiak nolabait ere gozatzeko egiñak zirala ta etzula nai argitaratzerik.

Orregatik, gauza utsa ziralakoan, asmatu ta paperean jarri orduko puskatu egiten zitun askotan. Bilintxen bertso asko galdata izan bear dute era ortaz.

Bein Manterola'k aditu egin zion Bilintxen lagun bati, onek "La Mierdópolis" zeritzayon

---

(1) J. Manterola: "Cancionero Vasco, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

poema, izugarri ederki euskeratuta zeukala. Manterola joan ta bein ta bitan ere eskatu egin zion uzteko. Bilintzek ezetz ta ezetz. Azkenean esan zun, aserre aldi batean puskatua zula.

Bilintx il da gero, Manterola alargunagana joan ta eskatu egin zizkion bere senarraren paperak. Bai utzi ere. Kontuz ta arretaz irakurri ta bertso ez ezagun asko arkitu zitun. Dan danak kopiatu zitun bere bertso bilduman. Bañan bere "Cancionero Vasco"-n onako auek bakarrik argitaratu zitun:

- 1878: Gaztetan jarriyak dama bati
- " : Neskata bati mutil batek jarriak
- " : ¡Izazu nitzaz kupira!
- " : "Al Céfiro"
- " : Dolores'i
- " : Bertsolariyen gudua

Toki ontantzen ere "Páginas inéditas en prosa" deitzen diranak agertu ziran lenengo aldiz. Auek itz lauz idatziak daude ta azkeneko orrialdetan jarri ditugu.

Domingo Kanpaña'ri botatako bertso famatu ura ere azkeneko utzi degu, Dunixi jaunaren erderazko lan batean bait-dator.

Beste bertso batzuen argitaraldirik zarrena —guk arkitu deguna beintzat— urtebete lenagokoa da, J. J. Santesteban'en "Colección de Aires Vascongados" deritzayon ortan aterea:

#### Potajiarena

Euskal-Erria aldizkariak iñoiz atera gabeko iru atera zitun:

- 1880: Orentzaro
- 1880: Kontua (Pagatzalle on bat)
- 1881: Pobriaren suertia

Geroxeagoko bertso paper bat izango da guk arkitu izan degun beste bertso batzuen argitaraldirik zarrena:



## Biyotz eritua

1911 urtean "Euskal-Esnalea"-k al izan zitun Bilintxen bertso guziak bildu ta liburu txo batean atera zitun. Bañan, zoritxarrez, jalta dira ontan oraindaño aitatu ditugun eta oraindik ere aitatuko ditugun zenbait bertso. Illunpetik argira bi atera zitun:

### Kanpuan da Iru erregeak

Bañan ez du esaten nundik artuak ditun. Geroztik ez da Bilintxen bertso ez ezagunik argitaratu. Gure liburu ontan badijoaz orrelako batzuk. Manterola'k bere bertso-bilduman Bilintxen paperetatik kopiatu zitun ta zearo baztertuta egon dira orain artean. Oraindaño aitaturako oyetan... bi dira: "Dama ta galaya" ta "Somaketa", ta gañera beste auek:

Nik au pensatu nuen  
Begirozute pikadoriak  
Zortziko  
Zaldun gazte  
Arotz bati ziyoten  
Penetan daramazkit  
Konfessoriagana  
Aspaldiyan Joxepa

Zergatik ez ote zitun Euskal-Esnalea'k danak atera, errexa da asmatzen: Manterola'ren bilduma ezagutu ez zulako. Ori bera gertatu zitzayon Erreteriko Makazaga'ri Bilintxen bertsoak liburu batean atera zitunean (2). Orre-

(2) Liburu onek Anton Ixkiña-ri deitzen diran bertsoak sartu egiten ditu, Bilintxenak balira bezela. Bañan ez da seguru inola ere. Arkitu ditugun bertso auen paper zarrenak ez dute Bilintxen izena aita-tzen ere. Bertso paper batean bakarrik agertzen da Bilintxen izena, bañan ori eskuz jarria. Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auek. Auek ere ez dute Bilintxen izenik azaltzen; egilletzat beste izen bat ematen dute.

gatik, *au* ere Bilintxen bertso batzuen faltan gelditu zan.

*Euskal-Esnalearena eta Makazaga-rena* izan dira orain arteko Bilintxen bi liburuak. Gaurko *au* irugarrena beraz. Bañan beste oyen aldean onek irugarren zati bat geyago izango du gutxi gora bera. Izan ere, suerte ohea izan degu. Besteetatik ere bai, bañan, irakurleak ikusiko duanez, Manterola ren bertso-bildum●ta "Cancionero Vasco" ori eten gabe aitatuko dira emen. Izan ere, liburu onen benetako antolatzailea Manterola da. Gu ez gera aren lanaz baliatu geranak baizik. Manterola da Bilintx ezagutu-arazi ta merezi zun mallara igo zuana. Manterola'rik izan ez bazan, Bilintxen bertso asko galdu ta bere izenak etzun izango orain duen sonarik.

Zorionez Manterola'k ikusi zitun paperak, ez dira danak galdu. Bejondayela Bilintxen ondorengoai gordetzeko ardura txalogarri ori izana. Bere billoba Antonio ta Alfredo jaunai eskertu bear diet paper oyek nere esku artea izana. Auek dira:

Loriak

Neskatxa bati mutil patek jarriak

Gaztetan jarriyak dama bati

Juramentua

Maita nazazu arren

Beti zutzaz pensatzen

Kanpuan da

Doloresi.

Esan bezela, ez dira Manterola'k ikusi zitun guziak, bañan pozik gera onenbestez. Oye-tako bat emen jarri nai izan degu, irakurleak ere Bilintxen letra ikusi dezan.

Bestela ere, Bilintxen bertsoak toki askotan arkitu ditugu: liburuetan, bertso-papere-tan, aldizkarietan, eskuz idatzietan ta abar. Jarri egin ditugu bakoitzaren aldaketak. Askoren ondoan izen bat dator. Dalako orrek eskuratua degula esan nai du. Erriaren izena

ere jarri egin degu. Orrela ageriko da Bilintxen bertsoak euskal erri guzietara zabalduak daudela.

Manterola'ren bertso-bilduma dala edo lenengo bertso-papera dala, geyenetan argitaraldirik zarrena edo lenengo "iturria" esku artean izan degu. Bai ederki ikusten dala emen nola aldatu egiten diran gauzak eskuz esku ibiltzean. Ez degu beti izango onelako alderdi onik, ta onek argi egin dezayeke besteai.

Bañan beste gauza au ere ondo gogoan artu bear luke irakurleak: argitaratutako toki-  
ren batzuk jarriagatik, ez degu inola ere esan  
nai Bilintxen bertsoak ez dirala beste inun  
arkitzen. Izan ere, nork kontatu Bilintxen  
bertsoak korritu dituzten bide guziak? Egin  
deguna da banaka batzuk markatu, irakurleak  
ikusi dezan bertsoai zer gertatzen zayen, sa-  
soya izan da ibiltzale diranean.

## G A L O P I N F E R N A L

### LAGUNDIKA FRATERNAL-EKO GALAYAK BEREN DAMARI

- 1/ Emakume maiteak,  
dantzara gurekin  
etortzen zeratenak  
borondatiakin,  
esan bialzutegu  
dezazuten jakin:  
dantzak bukatzen dira  
gaur gabekoakin.
  
- 2/ Zuen dantzetan zegon  
gure alegriya,  
aitortzen dizutegu  
klaroan egiya;  
orain utzi biarrak  
zuen konpañiya  
biotzeratzen digu  
tristura aundiya.

- 3/ Pena ori degula  
biotzen betian,  
zuengandik biagu  
egon apartian,  
ez eunki osuan,  
ez ogei urtian,  
baizik eta Paskuak  
etorri artian.
- 4/ Itxoron biar degun  
denbora motzian,  
pena franko izango da  
gure biyotzian;  
baña sartuko gera  
berriro pozian,  
gure nayeko egun  
oyek etortzian.
- 5/ Betoz ordu onian  
datozenerako,  
dantzako sala degu  
egoki parako;  
soñu politik ere  
etzaigu faltako,  
guziya ondo egin  
naiko degulako.
- 6/ Orra, maite politik  
klaro eman parte,  
ez degula dantzarik  
gaizuma jua arte;  
lenengua noiz degun  
jakiñian zaute,  
faltatu gabetanik  
etorri zaitezte.

## ZIRIRIKUAK

1/ Langilleen dantzetan  
izaten geranak  
bost arratsetan pruebak  
dauzkagu emanak,  
gure kontra izketan  
aritu diranak  
txit askoz engañatu  
dirala dianak.

2/ Ayek guregaitan  
esan zutena da:  
Barulloa sortzeko  
kuadrilla ona da!!!  
neskatxa onradurik  
baldin juaten bada,  
lotsatuta kanpora  
irten biarra da.

- 3/ Baita ere gauza onik  
gurekin ez dala,  
jaungoiko Bacok bere  
mendean gauzkala;  
ezagun da inbiriyak  
prejitzen zauztela,  
etzenduten gezurrik  
sortuko bestela.
- 4/ Eta segitu zuten  
lenago bezala,  
esanaz guziz gauza  
segurua zala,  
adornatutzen gure  
dantzetako sala  
dama onradurikan  
izango etzala.
- 5/ Oraindik deskontentu  
esan zutenakin,  
deskantsatu ziraden  
añadituakin:  
Alakorik batian  
biar degu jakin  
etxeratu zirala  
txandarme banakin.
- 6/ Dantzarako tokirik  
ote zegon nonbait  
galdezka Donostiyan  
asi giñan zenbait;  
uraxen topatzea  
kostatu zan zerbait,  
galarazi nayian  
bazebillen norbait.

- 7/ Noiz-ere-bait topatu  
genduen tokiya,  
aduaana zarreko  
zertegi aundiya,  
dudan gaude illa dan  
edo dan biziya,  
eskuetatik itzul  
egin zigun iya.
- 8/ Nai baluteke ere  
orain defenditu,  
lengo itzak lazuan  
arrapatzen ditu,  
gure dantzak pakian  
dira despeditu,  
ayek esantakorik  
ez da suzeditu.
- 9/ Orain gelditzen gera  
guziz ditxosuak,  
irten geradelako  
bitoriosuak,  
guk bezela esango du  
Donosti osuak,  
;bost gezur sortzen ditu  
inbiriosuak!!
- 10/ Gure dantzara damak  
polit onraduak  
etorritzen dirade  
guztiz apainduak,  
adornaturik ondo  
gorputz ta buruak,  
mantxarikan gabeko  
birjiña puruak.



11/ Gure dantzetan jua da  
guziya konpleto,  
damak serbitu dira  
iñon baña obeto,  
izandu diyotegu  
milla errespeto,  
berak kontentu daude  
badakigu zierto.

12/ Izan degu soñua  
dantzatzeko diña,  
bai eta damak ere  
bana eta biña;  
guziya izan da txit  
ederki egiña,  
bosti eman diyote  
sabeleko miña.

### *Bilintx*

---

Ikusi: **Bertso-papera**: "Donostian, Pio Baroja-ren moldiztegia - 1852". (Conde de Peñafiorida jaunaren paperen artean zegona, ta J. Arbelaiz ta J. J. Beloqui jaunen bitartez eskuratua). (**Galop Infernal** eta **Ziririkuak** orri batean daude. Bertso auek jarritakoan Bilintxek etzuen ogei ta bat urte besterik).

## KONTZezIRENTZAT (1)

- 1/ Kantatutzera indar aundiko  
desio batek naramà,  
Kontzezi, zuri nai dizut eman  
mereziya dezun fama;  
gure probintzi Gipuzkoakuan  
igualik gabeko dama,  
berinkatua izan derilla  
zu egin zinduen ama.

---

(1) Manterola'k ala dio bertso auengatik (Canc. Vasco, 2.<sup>a</sup> serie):

“Cuéntase esta composición entre las más conocidas del simpático y desgraciado Vilinch.

Escrita el año 1858 obtuvo diversas reimpresiones y alcanzó bien pronto gran celebridad, y puesta en música por el maestro J. J. Santesteban e incluida en su *Colección de aires vascongados* ha llegado a hacerse verdaderamente popular en Guipúzcoa”.

(Bañan ala nola dion bertso paper batek: “Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegian, 1857”. Beraz, Manterola'k uste zun baño urtebete zarragoak dira bertso auek).

- 2/ Zedorrek uste etzenuela  
 egon nitzaizun begira,  
 lenbizikuan oñetara ta  
 urrena berriz gerrira;  
 oñak dituzu txiki politak,  
 gustagarriyak txit dira,  
 gerriyan berriz eman litzazke  
 kana bat zintak bi jira.
- 3/ Andik urrena ipiñi nizun  
 erreparua petxura,  
 orduantxen bai eman nizula  
 aingeru baten itxura;  
 Jaungoikoak berak deitu izan balit  
 iyo nerilla zerura,  
 zure ondolik ara jua biarrak  
 emango ziran tristura.
- 4/ Ondoren jarri nitzan denboran  
 begiratuaz lepora,  
 biyotzak salto egiten ziran  
 irten nayian kanpora;  
 irten ta zuzen, badakit zierto,  
 juango zan zure kolkora,  
 nik jakitera nai zenuela  
 utziko niyon gustora.
- 5/ Atentziyua begiyetara  
 paratu nizun segiran,  
 ez dakit zierto begiyak edo  
 eguzki berri bi ziran;  
 ondo ikusi ez nizekizun ta  
 nola esango det zer diran,  
 begiratutzen nizun guziyan  
 bista kendutzen zeniran.

- 6/ Ille beltz eder dizdizariya  
oparo dezu buruan,  
konparatzeko baliyo duen  
sedarik ez da munduan;  
trentzak egiñik zenekan dana  
erregin baten moduan,  
diamantezko koro eder bat  
**falta zitzaizun orduan.**
- 7/ Ointxo politak, gerriya mia,  
graziya milla petxuan,  
lepo biribil dirurriyena  
egin berriya tornuan;  
pare gabeko begi argiyak,  
ille ederra buruan,  
zu baño aingeru politagorik  
ez da izango zeruan.
- 8/ Beti ariko naiz Jaunari eskaka  
ondo izan zaitezela,  
etzazula uste nere biziyan  
zutzaz aztuko naizela;  
eskumuñak maiz bigal nazkizu  
orain artian bezela,  
ainbeste egin biar dirazu,  
penaz ilko naiz bestela.

---

Ikusi: **Bertso-papera:** "Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegia, 1857". (New Library, Chicago).

**Bertso-papera:** "Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegia, 1859". (New Library, Chicago).

**J. J. Santesteban:** Colección de Aires Vascongados, San Sebastián. (Onek itzik ez, bañan letra batzuk aldatu ditu: "deseo", "desio" bearren, "merezia", "mereziya" bearrean, ta orrela; alegia, bertsolaritzan erabiltzen diran erak aintzat artu ez).

"**Cancionero Vasco** - José Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo II, Mayo de 1878".

**Bertso-papera:** "Impr. Baroja, San Sebastián" (M. Lekuona apaiz jauna).

**"Poesía Euskara"**, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896. Izena: Kontxexi.

**"Fakundo Adurriaga, "Besamotza", Tolosa"** (eskuz idatzia). 2/7: gerriyan berriz eman litezke.

**Bertso-papera:** "Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún". (Gregorio Mujika zanaren bertso bilduma, Donostian).

**"Cuaderno de Máximo Ugarte, Ariztimuño zanaren bertso bilduman.**

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak"**, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>-ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia: Izena: Kontxerentzat; 1/3: Kontxexi. (Geroko argitaraldia guziak ere Kontxexi edo Kontxezi esaten dute).

**Bertso-paparak, Inprentaren izen gabea.** (Gertrudis Arrieta, Erreterria): 1/5: gure probintzi Gipuzkoako.

**Bertso-papera:** Inprentaren izenik gabea, (Jose Angel Sarasola, Alzibar, Oyarzun): 2/3: lendabiziko; 2/7: gerriyak berriz.

**Bertso-papera, "Tip. Iriondo ta Cía."** (Joakin Gamborena Zabala, Erreterria).

**J. Recalde, Tolosa,** eskuz idatzitako kuaderno txiki bat. Onen amagiarrebarena omen zan.

**Aitor Mezo, Lejona,** eskuz idatzia: 2/7: eman liteke.

**"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani":** (makiñaz idatzia) 2/7: eman litezke - kana bat zintaz bi jira; 5/1: Atentziyua begietara - ipiñi nizun segiran; 5/3: ez dakit orain; 5/6: zer ziran; 8/1: Jaunari eskatzen; 8/3: nere denboran.

**Bertsolariya, 1931, Makazaga, Erreterria:** 2/7: gerriyak berriz.

**"Bilintx'en Bertsuak, Makazaga'ren irakorlan Errenderi";** 2/7: gerriyak berriz.

**Euskal Erriko kanta zarrak, Makazaga, Erreterria, Tomo II:** 1/8 zu eman zinduen ama; 2/3: lendabiziko; 2/7: gerriyak berriz.

**"Euskal Erriko kanta zarrak, Makazaga, Rente-**

ria, **Tomo III**": 1/8: zu eman zinduen ama; 6/5: zenezkan dana.

**Juan Aguirre Gaztambide**, Urdax, 1933, eskuz idatzitako bertso bilduma: 1/1: Kantatutzeko indar handizko - desegu batek nerama; 1/7: benedikatua izan dadiela; 2/3: lendabiziko; 2/6: gustagarria txit zera; 2/7: eman liteke - kana bat zintaz bi jira; 3/1: Handik urrengo erreparua - ipiñi nintzun petchora; 3/5: gure Jesus-ek deitu banintu - igan nadien zerura; 3/7: zure ondotik harat biharrak; 4 ta 5'garren bertsoak falta ditu; 6: Pare gabeko begi argia - ille ederra buruan / zu baino aingeru politagorik - ez da izango zeruan / trentzak egiñak zinauzkan danak - erregin baten moduan / diamantezko korona eder bat - falta zitzaizun orduan. 7'garren bertso ere falta du. 8/1: ...Jaunari eskatzen - ondo bizi zitzaidala; 8/7: ainbertze egin biar dirazu - penaz hilko naiz bertzela.

**Aita Donosti zanaren bertso bilduma**, Lekaroz, cuaderno de Argentina, makinaz idatzia: (Lenengo iru bertsoak bakarrik): 1/1: Kantatutzeko indar handiko; 2/2: egongu nuzu begira; 2/3: lendabiziko; 2/7: gerriyan berriz para litazke - kana bat zintaz bi jira; 3/1: Andik urrengo erreparua - ipiñi nizun petchora; 3/5: gure Jaungoikoak deitu banindu - igan nadien zerura; 3/7: zu hemen utzirik hara goatiak. (Jarri ez baditugu ere muga ondoko erak darabilzki: daitzut, duzu, dadiela...)

**Bertso papera**, inprentaren izenik gabea, bañan Zarauz'ko Elustondo'rena izan bear du. (Garro baserria, Guetaria). 1/3: Gregori zuri nai dizut eman. Zortzi bertso auek jarri ta gero segiran, 9, 10, 11, ... **Juramentua** izena duten bertsoak dakarzki.

**J. M. Etxaburu. Ondarroa**, eskuz idatzitako bertso bilduma: 4/4: irten nayian zerura; 5/6: zer ziran.

**"Milla Olerki Eder, A. Onaindia, 1954"**: 1/6: berdiñik gabeko dama; 1/8: zu eman...; 2/3: lendabiziko...; 2/7: gerriai, berriz,...; 3/6: igon nedilla zerura, 4/5: ...badakit ziur; 5/3: ez dakit ziur...; 6/7: koroe eder bat.

**Euskal kantan, Donosti, 1959.**

**Euskal kantan, Bilbao, 1960.**

1860 urte inguruan ba omen zan Donostian zaldi zuri bat, zikiñetako karruari tiraka ibiltzen zana. Makillazoak eta lana ugari, jatekoa berriz eskax, zaldia ezin pensa ala argalduta zegon.

Bilintzek bertsoak jarri zizkion. Bertso oyek bi modutara izendatu oi dira: **Zaldi baten bizitza** edo **Zaldi zuriyarenak**.

Illabete asko baño len, zaldia zearo zartuta ta gaixotuta zegola, lanerako balio etzula, ta tiroz il egin zuten.

Orduan, Bilintzek beste bi bertso jarri zizkan: **Zaldiaren eriotza** ta **Obizdea**.

Bilintxen bertsoai eskerrak, zaldi gizajo ori degu Euskalerrian iñoiz izan dan zaldirik famatuena. (Ikusi: Manterola "Cancionero Vasco, 1.<sup>a</sup> serie, Tomo I").

## ZALDI BATEN BIZITZA

- 1/ Orra sei bertso kale-  
-garbitzalleari,  
zeña bere izenez  
dan Jose Mari:  
erreza lezazkike  
iru Ave Mari,  
indarra etortzeko  
zaldi zuriari,  
animali ori  
urriki zait neri,  
falta du ugari  
egoteko guri,  
kartoyakin egiña  
dala diruri.

2/ Goizero bear diyo  
eraso lanari,  
zikiñak bildu arte  
erri danari:  
berriz ere obeto  
bizi ez danari  
nabarbenduko zaizka  
ezurrak ugari:  
ez naiz txantxaz ari  
eta, Joxe Mari,  
zaldi gaixoari  
nai aña janari  
eman zayozu, ea  
jartzen dan lori.

3/ Dago eskeletuen  
itxurak arturik,  
diña jan ezak dauka  
orrela galdurik;  
¿nola ez da egongo  
oso argaldurik,  
irukitzen badute  
askotan baraurik?  
zaldi orri nik (1)  
ez det esperorik  
ezer ikusterik  
ezurrak besterik,  
ez du beintzat izango  
odol golperik.

---

(1) Puntu au dagon bezela jarri degu, bañan,  
Manterolak berak dionez, motx dago ta, zaldi orreri  
nik izan bear luke.



4/ Lana sobra du bañan  
janaria falta,  
urrikigarria da  
dakarren planta;  
gaixoak ez lezake  
luzaro aguanta,  
flakiarekin ezin  
mugitu du anka,  
pentzu gutxi jan ta  
kalean jiraka,  
gaizki bizi da ta  
indarrrik ez daka,  
ezin karriatu du  
karro bat kaka.

5/ Munduan ez liteke  
zaldirik arkitu,  
duenik orrek aña  
pena sufritu;  
biotzik gogorrena  
lezake kupitu,  
ez du zartzera txarra  
gaixoak atxitu,  
pausua nagitu,  
ezin da mugitu,  
zaldi orrek ditu  
zazpi espiritu,  
bestela bizirikan  
ezin gelditu.

6/ Gizagaixoaz danak  
pena ar zazute,  
baldin biotz biguñak  
badituzute;  
asi zan egunetik  
eta orain arte,  
serbitzua egin du  
errian bastante,  
igande ta aste  
jayarekin naste  
makiña bat urte  
pasa dizkizute,  
orain erretirua  
merezi luke.

## ZALDIAREN ERIOTZA

Indarra zekan arte  
zikiña karrayo,  
eragiten zioten  
makiña bat sayo;  
bañan miñez jarri da,  
indarra jua zayo,  
nekearen pagua  
balaz eman zayo.

## OBIZDEA

Azkenak eman daude  
zaldi argal baten,  
zeñak ez zuen iñoiz  
pentzu on bat jaten;  
gelditu zaizkan mami  
puskak eramaten,  
beliak lan askorik  
apenas daukaten.

R.I.P. Amen

---

**IKUSI:** "Colección de Aires Vasconados - J. J. Santesteban", Donostia.

"Cancionero Vasco - J. Manterola, 1.<sup>a</sup> serie, Tomo 1.<sup>o</sup>, Enero de 1878".

**Bertso-papera:** "Eibar - Imprenta de Pedro Orúe" (Bibliothèque Nationale, París. Eskuz jarrita oar txiki bat du: "Pris á Durango, 1891".

"Poesía Euskara", Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896. 5/11: ezin du mugitu.

**Bertso-papera:** "Irun'en - Valverde alargunaren etxean - 1909" (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostia).

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia: Onak eta urrengo argitaraldi guztiak ere "R.I.P. Amen" ori ez dute.

"Cuaderno de Argentina", Aita Donosti zanaren bertso bilduma, Lekaroz: 1/14: dela du iduri; 2/4: erri guziari; 2/7...: puntuak tokiz aldatuta; orrela: 9, 7, 8; 12: eman nai aña janari; 2/13: puntu au falta da; 2/14: ea jartzen den lodi; 3/13: ez beintzat izango ("du" gabe); 5/7: ez du zahartze txarra; 5/13: bertzela bizirikan - nola gelditu?; 6/5 : asi sor egunetik; 7 ta 8: azkeneko bi bertso auek falta dira.

"El Día", 1931-V-13.

**Aitor Mezo, Lejona** (Bere aita zanaren eskuz idatzitako bertso mordoxka): 5/10 ezin du mugitu. 7 ta 8: azkeneko bi bertso auek falta dira.

**"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani"**: 1/5: erreza lezayozke; 1/10: erruki; 3/9: zaldi onetandik; 4/3: errukigarriya da; 6/6: eta oraindaño.

**Bertso-papera**: "Imp. R. Altuna - San Sebastián": Obizdea, 7: beliak larri askorik. (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian).

**"Bertsolariya"**, VIII, 1931: 5/10: ezin du mugitu.

**"Bilintxen bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderia"**.

**Fakundo Adurriaga "Besamotza", Tolosa**, eskuz idatzitako bertso mordoa: 4/7: flakezarekin ezin.

**Juan Aguirre Gaztambide, Urdax**, eskuz idatzitako bertso bilduma: 4/3: urrikgarria da.

**Estanislao Urruzola, Tolosa**, eskuz idatzitako bertso mordoa: 1/10: erruki; 4/3: errukarria dauka; 8/: OBIRATZIA.

**Argia-ren puska bat, VII, 1928**, (Manuel Urreta, Tolosa).

**Argia-ren beste puska bat; noizkoa dan ez da ageri**, (Segundo Aguirrezabalaga, Azpeitia).

**Argia-ren beste puska bat; irugarren ontan ere ez da ageri noizkoa dan**. (M. Lekuona apaiz jauna). 5/2: (au falta da); 5/7: ez du zartzaro txarra; Zaldiaren eriotza ta Obizdea falta ditu.

**"Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I"**, Makazaga, Errenteri: 5/10: ezin du mugitu.

**J. M. Etxaburu, Ondarroa**, eskuz idatzitako bertso-mordoa: 3/13: ez du beintzat ("izango" gabe); 6/8: puntu au falta da; 7 ta 8: bi bertso auek falta dira.

**"Gure Kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián"**: 5/10; ezin du mugitu.

**"Milla Olerki Eder, A. Onaindia, 1954"**: 1/10: erruki, 1/13: kartoiakin egiña diruri; ZALDIAREN ERIOTZA, OBIZDEA ta R. I. P. Amen, falta ditu:

**"Euskal Kantak"**, Donosti 1959: 5/10: ezin du mugitu.

**"Euskal Kantak"**, Bilbao, 1960: 5/10: ezin du mugitu.

## POZEZ TA BILDURRAK

1/ Dama gazte polit bat  
bada Donostiyan,  
berdiñik ez duena  
zeruan azpiyan,  
biyotza mugitzen zait  
modu txit eztiyan,  
nere pensamentura  
datorren guztiyan.

2/ Graziyazko aingeru  
adoragarriya,  
Jaunaren ondotikan  
egan etorriya,  
zeruak egintako  
milagro berriya,  
gloriyaz bete dezan  
Donostiko erriya.

- 3/ ¿Arpegiya zeñek du  
 arrek bezin fiña?  
 eta ¿zeñek gorputza  
 ain ongi egiña?  
 ibilleran ere da  
 guztizko ariña,  
 euskerak ez du itzik  
 famatzeko diña.
- 4/ Naiz plazara juan bedi  
 naiz juan iturrira,  
 ¿nork ez du arreta jartzen  
 aren ibillira?  
 bat bañan geyago're  
 gelditutzen dira,  
 ezkututzen dan arte  
 berari begira.
- 5/ Bere jatorrez duen  
 patxara fiñan,  
 biria pasatzen du  
 pauso ariñan,  
 lurrik ez du zanpatzen  
 txoriyak añan,  
 txutik juango litzake  
 uraren gañan.
- 6/ Orrenbeste graziya  
 dituen meriyo,  
 arentzako gordia  
 zenbat amoriyo  
 biyotzian dakatan  
 ¿nork kontatu diyo?  
 kalian ikusita  
 esan dit: "¡Ariyo!".

- 7/ Berriz ikusitzeko  
 egingo det modu,  
 juango diran baño len  
 ogei ta lau ordu  
 "¡ariyo!" esaten badit  
 laister entzungo du:  
 "¡Nere arratseroko  
 ametsa, zer modu?"
- 8/ "Ongi nai ta ezin izan"  
 esango dit anbat,  
 nik erantzungo diyot:  
 "Noski besteren bat  
 izango da, sufritzen  
 duena zuk ainbat..."  
 "¿Zein da bada, esazu?"  
 "¡Zu nai zinduzken bat!"
- 9/ Burlaz esaten dezu:  
 "¿Nork naiko nau ni? ¿nork?  
 aberatsa ez danik  
 ez du maite iñork."  
 Baña nik orduantxen  
 erantzungo diyot:  
 "¡Zoragarriya, naizu  
 maita gaiten biyok?"
- 10/ Bayetz esaten baldin  
 badit erdi farrez,  
 erotu egingo naiz  
 pozaren indarrez;  
 ezetz entzuten badet  
 nere suerte txarrez,  
 ¡itz orrek utziko nau  
 betiko negarrez!

---

Ikusi: Donostian: Pío Baroja-ren moldiztegia, 1862'garren urtian. (New Library, Chicago, ta baita ere Bibliothèque Nationale, Paris).

“Colección de José Manterola”, 29'garren orria, eskuz idatzia.

“Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak”, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y Cía'ren etxean. (Euskal Esnalea'k argitarara-arazia). Onek eta onen ondorengo argitaraldi guziak bertsoen izenburua aldatu egin diote. Ala diote: **Pozez eta bildurrez**. Orixe bera gertatzen da beste aldaketa batekin: 5/1: bere jatorriz duen. Au ere Euskal Esnalearen argitaraldiak aldatu egin zun. Seguru asko, “jatorrez” inprentaren ustegabeko okerren bat zalakoan. Ez da ori ola. Bilintxek bein baño geyagotan esaten du “jatorrez”. Nunbait, geroko danak Euskal Esnaleari kopiatzan aritu dira. Onekin naikoa da ta ez degu berriz emango aldaketa auen berririk.

**Periodiku puska bat.** (Antonino Lacunza zana, Tolosa). Ezin somatu ez zein periodiku dan ta ez noizkoa dan.

“Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani”:  
3/4: ain ondo egiña; 4/3: nork ez arreta jarri; 4/5: bat baño geyago're; 4/7: ezkutatu artian; 6/7: bi-dean ikusita; 9/8: ezkon gaiten biyok; 10/3: zoratu egingo naiz.

**Aitor Mezo, Lejona.** (Bere aita zanak idatzitako kuadernua).

“**Bertsolariya**”, Macazaga, Rentería. 4/2: dago Donostiyan.

**Bizente Aguirre, Ibarra,** eskuz idatzitako kuaderno bat: 1/7: argan pentsamentua; 2/3: zeruben ondotikan; 2/8: gaur gure erriya; 3/2: onek bezin fiña; 4/1: Naiz iturrira joan - naiz joan plazara; 4/4: onen ibillera; 6/5: biotzian daukatanik - nork esandu diyo; 8/2: ainbat; 8/3: nik ere erantzungo - diyot besteren bat; 8/7: zein dan bada esazu; 9/7: maitagarria naizu; 10/3: zoratu egingo naiz; 10/5: ezetz esaten badit - nere zoritxarrez.

Aurrekoaren ertzean aldaketa batzuek idatzita dauzkat. Tolosa'ko Estanislao Urruzola'ren kuadernotik artuak izan bear dute. Auek dira: 1/7: argan pentsamentua - datorren guzian; 4/1: Naiz plazara



joan edo - berdin iturrira; 4/3: nork ez du errepara-  
tzen; 4/5: amaika baña geyo - gertatutzen dira; 5:  
Gero eleizatikan - etxeratutzian / txoriak bezelaxe -  
saltoko bidian / kaliak pasatuaz - pauso ariñian /  
xutik joango litzake - uraren gañian.

“Bilintxen bertsuak Makazaga'ren irarkolan,  
Errenderi”: 1/2: dago Donostiyan.

## JURAMENTUA (1)

- 1/ Begi urdiñak dituzu eta  
arpegi zuri gorriya,  
nere biyotzak maite zaituen  
aingeru zoragarriya;  
zumia bezin biguñia eta  
mia da zure gerriya,  
estutu bage artu liteke  
bi eskuakin neurriya.

---

(1) Manterola'k alaxe dio: "...he visto, entre otros, copiados de puño y letra de este desgraciado poeta, los originales de la poesía **Juramentuba**.

Y como quiera que en ellos existen diversas variantes de la composición tal cual se publicó allá hacia 1862, he creído deber anotar al pie todas las diferencias que he encontrado en las cuartillas del autor, por más que el estudio hecho de uno y otro texto me inclina a creer que las cuartillas halladas son las primitivas de Vilinch, que debió aumentar y corregir al tratar de dar su composición a la prensa". (Cancionero Vasco, 1.<sup>a</sup> serie, Noviembre de 1877).

Bai bertsoak ta bai azpiko oarrak ere, Manterolak jarri zitun bezelaxe jarri ditugu guk ere emen.

2/ Lengo batian, izar berriya,  
ongi fortuna nerian,  
maite ninduzun galdetu eta  
bayetz erantzun zeniran;  
pozakin iya zoraturikan  
aditu eta segiran,  
beso eskuya estutu nuen  
zure gerriyaren jiran.

3/ Neri begira gelditu ziñan  
burua triste etzanaz,  
ni ere zuri begira negon  
“¡maite neria!” esanaz;  
luzaro ala egondu giñan  
suspiriyuak emanaz,  
biyok elkarren begiyetatik  
amoriyua eranaz.

4/ Ongi penakin azkaturikan  
zure gerritik besua, (2)  
ez zait aztuko nola esan nizun  
“¡Nere maitetxo gozua!  
zorionaren ekartzallia,  
izar amoriosua, (3)  
zu adoratzen igaroko det  
nere bizitza osua!”. (4)

---

(2) Oraindik ere zure gerriyan  
ala nekala besua,...

(3) begi ederrak dituzu ere  
biyotz amoriosua,...

(4) zu adoratzen pasatuko det...

- 5/ "Maite nazula len esan dezu,  
 ¡berriz esan zazu arren!,  
 ez naiz entzutez gogobeteko  
 milla bider esan arren:  
 nun ta zeruak erabakiya  
 beste moduz ez dakarren,  
 denbora gutxi barrun gu biyok  
 izango gera elkarren". (5)
- 6/ Imajiña bat zillarrezkua  
 kordoi batekin lotua, (6)  
 begiz aurrian jarri zeniran  
 kolkotik ateratua  
 zeñetan zegon gurutzeturik (7)  
 Jaunaren Seme santua:  
 "Onen aurrian —esan zeniran—  
 egizu juramentua".
- 7/ Faltsiyarikan ez zeguela  
 nere biyotz xamurrian,  
 proga emango nizun eguna  
 arkitzen zala urrian,  
 begiratua imajiñan ta  
 belaun eskuya lurrian,  
 juramentua eskeñi nizun  
 Jaungoikoaren aurrian. (8)

---

(5) "En los originales citados de Vilinch, no existe esta estrofa, una de las más importantes y más bellas de la composición, lo que parece confirmar la idea expuesta de que dicho original es anterior a la copia publicada, que con este objeto pudo corregir y adicionar". (Manterola'k)

- (6) berezko katez lotua,...
- (7) zeñetan zegon gurutzaturik...
- (8) eskui eskua biyotzian ta  
 belaunak biyak lurrian,  
 juramentua nik egin nizun  
 Jaungoikoaren aurrian.

8/ Fintasanakin kunplituko det ez da zer egon zalantzez, denborarikan igaro gabe gogo txarreko balantzez; (9) erakusitzen baldin badizut falsiyarikan mudantzez, nere biyotza bete dezala damutasunak arantzez.

---

(9) Fintasanakin kunplituko det bazeundeke konfiantzez, bire orretan ez det emango pauso bat ere balantzez;...

---

**Ikusi: Bilintxen eskuz idatziak:** Manterola'k bere oarretan daukan bezelaxe dago. Izan ere, Manterola'k ikusi zuna izango da.

**Bertso-papera:** Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegian: 1/7: uztaitu bage.

“Colección de J. Manterola”, 30'garren orria, eskuz idatzia.

“Cancionero Vasco - J. Manterola, 1.<sup>a</sup> serie, Tomo 1.<sup>o</sup>, Noviembre de 1877”.

“Poesía Euskara”, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896.

**Tolosako Zelestina Arrieta** zanaren eskuz idatzitako bertso-mordoxka.

**Bertso-papera:** “Irun'en - Valverde'ren alargunaren etxean - 1909. (Gregorio Mugica zanaren bertso-bilduma, Donostian).

**Bertso-papera:** “Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún” (Manuel Urreta zana, Tolosa).

**Bertso-papera:** “Imprenta, Librería y Encuadernación de Goitia y Compañía - Guernica”.

**Aitor Mezo, Lejona,** bere aita zana eskuz idatzitako bertso bilduma: 3/7: biyotz elkarri begietatik; 4/8: nere biziya osua.

**“Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani”.**

**Bertso-papera**, inprentaren izenik gabea (Garro baserria, Getaria), aurretik **Kontzezi**, urrena **Juramentua**, onen bertsoak arenai erantsita.

**“Bertsolariya”**, 3, 1931.

**“Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi”.**

## LORIAK (1)

- 1/ Beti nik damari  
;loriak ugari!  
batez ere zerbait (2)  
maite naubenari;  
damak berriz neri,  
;gezurra diruri!,  
osiñez pagatu  
lorezko zor ori.

---

(1) Manterola'k (Ikusi: "Cancionero Vasco") alaxe dio bertso auengatik: "...fue escrita en 1862, y vio la luz en las columnas del periódico local "El Guipuzcoano", correspondiente al 24 de Julio del mismo año."

"...he tenido el gusto de ver borradores originales del autor, que me han movido a aceptar algunos cambios de versos, introducidos por el mismo Vilinch, en época probablemente posterior a su publicación. El lector hallará señaladas todas estas variantes en las notas que acompaño al pie del texto."

(Arrazoi onengatik alegia, geroke aldaketak izango diralakoan, gerok ere, naiz ta Bilintxen bertso auetako eskuz idatzi bat ta lenengo argitaraldia eskuan izan, Manterola'k bezela jarri degu emen.)

Ta gero, oar batean: "En la edición impresa en 1862, estos versos aparecen encabezados con los siguientes del autor del **Diablo Mundo**:

2/ Oso nago mendean  
jaungoiko itxuaren,  
Ama Venus-engandik  
jayotako aren;  
neroni ez naiz jabe  
nere biyotzaren,  
gaxua preso dakat  
amoriyuaren.

3/ Sartutzen dan bezela  
balkoi batetikan  
eguzkiya gelara  
kristaletatikan,  
neri gisa berera  
bein sartu zitzaitan  
dama bat biyotzera  
begiyetatikan. (3)

---

“Tanta frase inútil y rodeo,  
a mi corto entender, no es más que ruido;  
pero también a mí me entra deseo  
de echarla de poeta, y el oído,  
palabra tras palabra colocada,  
con versos regalar “sin decir nada”.

(El Diablo Mundo, poesía de D. J. Espronceda)  
La cita no aparece en los originales de Vilinch.”

(2) En la edición impresa léese, en vez de este verso:

“En demas piska bat...” (Manterola'k)

(3) En la edición impresa, ya citada, la segunda parte de esta estrofa aparece así:

“Modu ortaraxe bein  
igaro zitzaitan  
biotzera dama bat  
begiyetatikan.”

El pensamiento es completamente el mismo.  
(Manterola'k)



4/ Biyotz nerian preso (4)  
gelditu zan bertan, (5)  
geratzen dan bezela  
txingarra iyaskan;  
bizi naizen artian  
irukiko det an,  
eta jo zer gustora  
irukiko detan! (6)

5/ Ditu ille urrezko  
albiñu luziak,  
alakorik apaintzen  
ez du orraziak;  
frankotan inbiriya  
eman dit aiziak,  
aren trentza tartetik  
jostatzen pasiak.

6/ Ondo konparatzia  
da gauza eziña,  
aren begiyetako  
urdintasun fiña;  
ez da irrutira're  
aitatzeko diña  
itxasoko bagaren  
kolore urdiña.

---

(4) Esku artean izan ditudan eskuz idatzietan onelaxe dago: "Biyotzera sartu ta...".

(5) En la edición impresa se lee:  
"gelditu bire zan..." (Manterola'k)

(6) La segunda parte de esta estrofa aparece variada de este modo en la edición impresa:

"obligatua nago  
egotera bertan,  
nun ta biyotz ta guzi  
ateratzen ez dan." (Manterola'k)

7/ Ez da zer aitaturik  
zeru zabala're,  
bolaraz urdin urdin  
jarritzen dala're;  
aingeru neriazen  
begiyak alare  
urdin puruagoko  
zeruak dirare.

8/ Izarrak dirurite,  
ain ditu argiyak,  
aingeruak zerutik  
jatxi ta jarriyak,  
gloriyan egintako  
lspillu garbiyak,  
Jaungoikoa badala  
gogoragarriyak. (7)

9/ Cupido'k eritzen nau  
fletxakin berriro,  
neregana jiratzen  
dituen aldiro,  
biyotzera sartzen zait  
eztiro eztiro,  
alakoxe gauza bat (8)  
gozua guztiro.

---

(7) En uno de los borradores del autor, que he tenido entre manos, los dos últimos versos de esta estrofa aparecían sustituidos por estos otros:

"Ayetxek dira nere

buru galgarriyak." (Manterola'k. Esku artian izan ditugun eskuz idatzietan alaxe dago.)

(8) En la edición impresa, en vez de este verso se lee:

"amoriyotasun bat..." (Manterola'k)

10/ Aren ezpailñ gorriyak  
faman daude fintzat,  
iñoiz pasatzen dira  
lore polit bitzat, (9)  
zerbaitez apartetik  
ikusita beintzat,  
mundu guztiyak artzen  
ditu krabelintzat.

11/ Farrik egiten badu  
zerutar birjiñak,  
erakusten dituen  
ortza txiki fiñak,  
txuriz elurrarekin  
dirare berdiñak,  
perlak iruri dute  
zillarrez egiñak. (10)

---

(9) En la edición impresa, en vez de los cuatro primeros versos de esta estrofa, hállanse éstos:

“Aren ezpailñ gorriyak,  
nere atsegintzat,  
ondo merezi dute  
famatzia fintzat;” (Manterola'k)

(10) En uno de los originales que he visto, de puño de Vilinch, esta estrofa aparece con las variantes que pueden notarse a continuación:

“Ayen barrengo aldetik  
ortza txiki fiñak,  
txuriz elurak ere  
mentzutu eziñak,  
errenkara polit bi  
ain ditu berdiñak,  
nola izan baziran  
moldian egiñak.” (Manterola'k. Esku  
artean izan ditugun eskuz idatzietan ere alaxe dago).

- 12/ Gozuaren birtutez  
aren asnasiak  
lo-arazitzen ditu  
nere oñaziak; (11)  
usai oberik ez du  
banatzen aiziak,  
loriak maitatuaz  
baratzen pasiak.
- 13/ Arpegiya polita, (12)  
gorputza liraña,  
txikiz ez det esaten  
oñaren tamaña;  
ibiltzen airetsua,  
jantziyan apaña,  
aren graziyak dira  
ezin esan aña.

---

(II) En uno de los originales del autor aparece modificado así el principio de esta estrofa:

"Gaur arte sortutako  
usai on klasiak,  
azpitik uzten ditu  
arren asnasiak;

obiagorik ez du..." (Manterola'k. Esku artean izan ditugun eskuz idatzietan ere alaxe dago.)

(12) En la edición impresa se lee en vez de este verso:

"Lepoa biribilla..." (Manterola'k)

---

Ikusi: **Bilintxen eskuz idatzia, Madriden.**

Ikusi: **New Library, Chicago** (periodiku puska bat). Seguru asko, Manterola'k diona izango da: "El Guipuzcoano", 24-VII-1862.

**Kanta-papera:** "Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegian 1862'garren urtian" **New Library, Chicago.**

"Colección de J. Manterola", 33'garren orria, eskuz idatzia.

**Cancionero Vasco - José Manterola, 3.<sup>a</sup> serie, 1880".**

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak"**, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

**Kanta-papera:** "Tolosan, E. Lopez'en etxean" J. Gamborenea Zabala - Rentería: 1/3: ta geigo pixka bat; 3/2: leyo batetikan; 3/5: modu ortaraxe bein - igaro zitzaitan / biyotzera dama bat - begiyetatikan; 4/2: gelditu bide zan; 4/4: txingarra lastotan; 4/5: bearturikan dago - egotera bertan / nun ta biyotz ta guzi - ateratzen ez dan. 6/1: Ondo berdindu; 6/5: ez da urrutira ere; 7/2: zeru zabala ere; 7/6: begiyak ala ere; 7/7: urdin berdingabeko - zeruak dirade; 9/7: amoriyotasun bat; 10/1: Aren ezpaili gorriyak - nere atsegintzat / ondo merezi dute - goratzia pintzat; 10/5: zerbaitez urrutira; 12/1: Gozoaren indarrez; 13/1: Lepo biribilla ta; 13/5: ibiltzen aizetsua; 13/6: jantziyan apaña. (Ageri danez, kanta-paper au ateratzeko, lenengo argitaraldi zarra izan zuten begien aurrean, bañan, noizean bein, itzak aldatuta daude, euskera garbitzearren.)

**"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani":** 1/2: bai ere pixka bat; 2/5: nerau ni ez naiz jabe; 3/5: modu ortan igaro - zitzaidan ezikan; 3/7: biotzera dama bat; 4/2: gelditu bide zan; 4/3: gertatzen dan bezela; 4/5: ta beratua dago - eotea bertan; 4/7: nun da biotz da guzi - ateratzen ez dan; 5/5: askotan inbidiya; 9/3: neregana biratzen; 10/1: Aren ezpaili gorriyak - nere atsegintzat / ondo merezi dute - famatzia fintzat; 10/5: zerbaitez urrutitik; 13/1: lepo biribilla ta; 13/5: ibiltzen aizetsua; 13/6: jantziyan apaña. (Onek lengoak bezela egin du, itxura danez).

**"Bertsolariya"**, Makazaga, Rentería, 1932: 4/4: txingorra iyeskan; 5/6: arren trentza tartetik.

**"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi":** 2/7: gaixtua preso daka; 4/4: txingorra; 13/7: ez naiñ zeaña.

**"Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo II, Makazaga, Rentería":** 4/4: txingorra iyeskan; 13/5: ibiltzen airosua.

**"Gure Kantak"**, Donostian, 1959: lengoa bezela.

## ¡MAITA NAZAZU ARREN!

- 1/ Biyotzaren erditik  
zeruzko dama bat, (1)  
amoriyoz maite det  
ezin esan ainbat;  
sufri-arazitzen dit  
erotzeko din bat,  
artara ekarriko nau  
oraindikan anbat.
  
- 2/ Nere maitasun onek  
falta du ordaña,  
etzait ongi portatzen  
aingeru liraña; (2)  
itxumen guztiyakin (3)  
maitatzen det baña...  
berak ez nau ordia  
nik merezi aña.

---

(1) En el original de puño y letra de Vilinch dice: "Zerutar dama bat". Au eta beste guziak ere Manterola'ren oarrak dira.)

(2) Dice en el original:

"Diyotalarik ere - naitasun bikaña,  
nere amoriyuak - falta du ordaña;"

(3) "Itxumen aundiyakin"

3/ Zoraturikan beti  
aren billa nabil,  
ura berriz nigandik (4)  
igesika dabil;  
laister logratuko du  
onla banarabil,  
biyotzikan gabiak  
penaz nai banau il.

4/ Iñon ikusi gabe  
sei aste luziak, (5)  
beti artaz pentsatzen  
negarrez pasiak;  
begi biyak dakazkit  
malkotan asiak,  
ez du asko kupitzen  
nere oñaziak.

5/ Aren krueltasuna  
izanik ainbeste, (6)  
penaz betia nago  
miñez eta triste;  
izar dizdizariya,  
nitzaz kupi zaite,  
zuregatik ilko naiz  
ez banazu maite.

---

(4) "Bera berriz nigandik"

(5) "Bi aste luziak"

(6) "Dalako ainbeste"

- 6/ Baldin gertatzen bada  
orrelakoren bat,  
zedorri're damuak (7)  
ilko zaitu anbat;  
maita nazazu bada  
nik zaitutan ainbat,  
elizan egiteko  
biyotz birekin bat.

---

(7) "zu ere gero damuak". Verso mucho armonioso que indica bien claro que la composición original de Vilinch que cito, fue corregida por éste antes de su publicación.

---

Ikusi: Bilintxen eskuz idatziak.

"Bibliothèque Nationale, Paris", "Donostian: Pio Baroja-ren molditegian. - 1862'garren urtean".

"Colección de J. Manterola", 31'garren orri-aldea, eskuz idatzitako orria. (Onek Parisko bertso-paperrari itzez itz kopiatzen dio, bañan, bide batez, or aurrean jarri ditugun oarrak dakartzki eskuz idatzietatik artuta. Beraz biak izan zitun begien aurrean; gerok ere bai, eta Manterola'k bezelaxe jarri ditugu).



## BETI ZUTZAZ PENSATZEN (1)

- 1/ Dama gazte bat ezagutzen det  
diruriyena izarra,  
eguzkiyari kopetetikan  
saltatutako txingarra;  
biyotz nerian ala piztu du  
amoriyozko su-garra,  
nola mendiyen piztu lezaken  
tximistak arbol igarra.
  
- 2/ Beti goguan zauzkatan dama  
izarra dirurizuna,  
eguzkiyaren biarrik gabe  
argi egiten dezuna;  
berdin gabeko amoriyua  
senti arazten nazuna,  
aditzera ezin eman nezake  
dizutan maitetatsuna.

---

(1) Manterola'k ala dio: "...dedicada a la que fue después su amantísima esposa y es hoy su viuda, se publicó en el diario "Aurrera" de 1.º de Diciembre de 1868, sin que haya vuelto a ser reproducida desde aquella fecha". (Cancionero Vasco, 3.ª serie).

- 3/ Nere begiyak beren aurrian  
 ikusten ez bazaituzte,  
 gixaraxuak eta biyotza  
 egoten dira txit triste;  
 sinistra zazu mundu guztiyan  
 ez dala inor ni beste,  
 zu maitatzeko kapaz danikan  
 merezi dezun ainbeste.
- 4/ Gau eder alai ayetako bat  
 gertatutzen dan orduan,  
 izarrak diz diz egiten dute  
 zeruko urdin puruan;  
 diferentzirik batere gabe  
 zuk nere pensamentuan  
 diz diz alaxen egiten dezu  
 nola izarrak zeruan.
- 5/ ¿Ia gozua izango al dan,  
 enamoraturik dana,  
 ama on batek aur maitiari  
 ematen diyon laztana?  
 alare bada beste gauza bat  
 askoz gozuago dana,  
 zureganako amoriyua  
 nere biyotzak daukana.
- 6/ ¿Nork irukiko zaitu nik bezin  
 ixtimaziyo aundiyan,  
 animatikan maite bazaitut  
 erotutzeko zoriyan?  
 amoriyozko naitasunakin  
 gorderik erdi-erdiyan,  
 biyotz nerian ala zaukazkit  
 nola niniya begiyan.

- 7/ Bost urte diran ez dakit baño  
beñepein badirare lau,  
faltatu gabe nere oroitzan  
zaudela egun eta gau;  
zu itxumenez maitatutzeko  
zeruak siñalatu nau,  
alik lenena premiya zazu  
egiyazko naitasun au.

*Abenduaren aurrenlan 1868-yan*

---

Ikusi: Bilintxen eskuz idatziak 7/5, 6, 7, 8: Puntu auek alaxe jarri zitun Bilintxek lenengo aldiz:

maitia, zuri erregutzera  
biyotzak obligatzen nau,  
alik lenena paga zazula  
egiyazko maitasun au.

Bañan gero 7/5, 6, 7 zuzendu ta alaxe jarri zitun:

itxumenakin maitatutzera  
zeruak siñalatu nau,  
premiyatua izan derilla

Azkenean 7/5 ta 7 zuzendu zitun, liburu ontan eta toki guztietan agertu diran bezela utzia.

"Colección de J. Manterola", 28'garren orria ta New Library, Chicago. Bi auetan periodiku puska bana dago. Periodiku bera da, ta dudarik gabe Manterola'k aitatzen dun "Aurrera" eguneroko ori izango da. 2/7: eman liteke.

"Cancionero Vasco, J. Manterola, 3.<sup>a</sup> serie, 1880": 1/7: piztu dezaken; 2/7: eman liteke.

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostia'n, Martin Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean Euskal-Esnalea'k argitara-arazia: 1/7: piztu dezaken, 2/7: eman liteke.

"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani",  
makinaz idatzia: 2/7: eman liteke; 4/5: ezberdiñikan  
batere gabe; 5/6: maitasunikan; 7/3: utsikan gabe  
nere oroitzan; 7/6: zeruak bereziya nau; 7/7: alik  
lenena saritu zazu.

Bertsolariya, 24, 1932, Makazaga, Errenteri: 1/7:  
piztu dezaken, 2/7: eman liteke.

"Bilbatx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan,  
Errenteri", 1/7: piztu lezaken; 2/7: eman liteke.

¡JA JAI! (1)

1/ Bein batlan Loyolan  
erromeriya zan,  
antxen ikusi nuen  
neskatxa bat plazan,  
txoriya bañan ere  
ariñago dantzan,  
uraxen bai pollita  
an pollitik bazan.

2/ Esan niyon desio  
senti nuen gisan,  
arekin izketa bat  
nai nuela izan;  
erantzun ziran ezik  
atsegin ar nezan,  
adituko zirala  
zer nai niyon esan.

---

(1) Bertso auetaz Manterola'k ez dio ezer, ez noizkoak diran, ez nun argitaratuak diran estrañako aldiz, ta ezta ere berak nundik artu zituan.

- 3/ Arkitu giñanian  
 iñor gabe jiran,  
 koloriak gorritu  
 arazi zizkiran;  
 kontatuko dizutet  
 guztiya segiran  
 zer esan niyon eta  
 nola erantzun ziran.
- 4/ —Dama polita zera,  
 polita guztiz ¡ai!  
 bañan alare zaude  
 oraíndik ezkon gai,  
 ¡ezkon gaitezen biyok!  
 ¡esan zadazu bai!  
 —¿Ni zurekin ezkondu?  
 ¿ni zurekin? ¡ja jai!

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 28'garren orria, periodiku puska bat. Zein periodiku ote dan ez dakigu, antziñakoa dala ori bai.

"Cancionero Vasco - J. Manterola, 1.<sup>a</sup> serie, Tomo III, Enero de 1878".

"Poesía Euskara", Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián 1896.

**Zelestina Arrieta, Tolosa**, eskuz idatzitako bertso-mordoxka.

**Bertso-papera:** "Irun'en - Valverde alargunaren etxean - 1909" (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian).

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostian, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

**Aitor Mezo, Lejona**, bere aita zanak eskuz idatzitako bertso-mordoa: 2/6: atsegiñaz esan; 3/3: koloriak gorritu - an asi zizkiran.

**Bertso-papera:** "Imp. J. Díaz, Irún". Aita Donosti zanaren bertso bilduma, Lekaroz: Lenengo bi bertsoak bakarrik, beste kanta batzuen artean.

"Bertsolariya", II, 1931, Makazaga, Errenteri.

**Bilintx'en Bertsoak,** Makazaga'ren irarkolan, Errenteri.

**Juan Aguirre Gaztambide, Urdazubi,** eskuz idatzitako bertso bilduma: 3/8: zer nai niyon esan.

**Bertso-papera:** "Imp. R. Altuna. - San Sebastián" (Gregoria Ibargoyen, Orío).

**Bertso-papera:** "Imp. Echenagusía. - María Muñoz 8. - Bilbao" (Isidora Mokoroa, Tolosa).

"Cuaderno de Máximo Ugarte", Ariztimuño zanaren bertso bilduma.

**Dorronsoro'tar Jokin'ek bialdutakoak,** Ariztimuño zanaren bertso-bilduma: 1/: Puntuak nastuta daude era ontaz: 7, 8, 5, 6; 2/1: Berari esan nion - igual zan gisan / berak erantzun ziran 3/: Bertso au falta da; 4/2: ederra guztiz bai; 4/3: bañan oraindik zera - alare ezkongai.

**Juan Iturralde ("Juanito Kojua"),** Donosti, makinaz idatzitako orria.

"Gure kanta zar jatorrenak", Librería Múgica, San Sebastián.

"Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I", Makazaga, Errenteri.

"Milla Olerki Eder - Aita Onaindia, 1954": 2/6: atseñik ar nezan.

"Euskal Kantak", Donosti, 1959.

"Boga, Boga", Donosti, 1959.

"Euskal Kantak", Bilbao, 1960.

## ZENBAIT DAMAREN ESKER TXARRA

1/ Atzo probetxu gabe  
etxeko auzuan,  
egondu nitzan zure  
zai egun osuan;  
gaur suertez ikusitzen  
zaitutan kasuan,  
itz egin biar dizut  
izketa gozuan.

2/ Zein ta politak diran  
arrosa, jazmiña,  
azuzena, liriyo  
eta klabeliña;  
danak bat eginta're  
ez dirade diña,  
igualatzeko nere  
maite atsegiña.



- 3/ Nai det jakin dezazun  
orain beriala,  
txit asko nai dizutan  
neskatxa zerala;  
gaur zu ikusitziak  
poztutzen nau ala,  
nun iruritzen zaitan  
jai aundi bat dala.
- 4/ Au da mundu guziyak  
ongi dakiyena,  
zu zerala dama bat  
grazi utsa dena;  
bat oyetan badezu  
erotzen naubena,  
artan arkitzen dizut  
grazirik geyena.
- 5/ Izan ere gorputza  
dezu aproposa,  
ikusi utsarekin  
ematen du poza;  
beste iñor ez dala  
zu bezin airosa,  
erri guziyan dago  
banatua boza.
- 6/ Patxaran ibiltzia  
dago gaur bolaran,  
pausaje fiña orain  
zergatik moda dan;  
eta zu ikustia  
modako patxaran,  
jez dakizu neretzat  
nolako ditxa dan!

- 7/ Nik esan ta zuk jakin  
biazu ezikan,  
lau andregai dakazkit  
artu nai ezikan;  
ezkonduko nitzake  
gaur bertan kasikan,  
besterekin ez bañan  
¿zurekin, pozikan!!
- 8/ Amoriyorik gabe  
pasatu eziñez,  
nik damak maite ditut,  
aitortzen det ziñez;  
begiyakin guziyak,  
milla bai mingañez,  
¿bañan biyotzarekin?  
¿zu besterikan ez!!
- 9/ Zu zera, bai, zu zera,  
damatxo maitia,  
nere desiuaren  
zeruko atia;  
biyotz onez nerekin  
bat egin zaitia,  
eta biziko zera  
kontentuz betia.
- 10/ Ortarako aguro  
genuke eguna,  
nik nai detana balitz  
biyok nai deguna;  
bañan zure asmua  
da txit ezaguna,  
ez dezu estimatzen  
nere naitasuna.

11/ Dítxa bat ez dit opa  
fortuna zekenak,  
negarrez daramazkit  
ordurik geyenak;  
ezin aundiyagoko  
oñaze ta penak,  
sufritutzen bizi naiz  
zuregatik denak.

12/ Miñ abetaz kupitzen  
ez baldin bazera,  
nere burua nua  
betiko galtzera;  
Matxo'ra (1) iyoko naiz  
andik botatzera,  
duen altuenetik  
Gaztelu atzera.

### *Bilintx*

*Debekatua dago kanta obek iñork moldeko  
letrakin paperian ezarritzia, beren sortzallia-  
ren baimena bage, bada onentxen bere beriak  
dirare, eta ontan faltatzen duenak izango du  
legiak agintzen duen kastigua.*

*Donostiyan: —Juan Osés-en Moldiztegiyan*

---

(1) El Macho esaten zayo Gaztelu guziko burua-  
ri, gaur Jesusen Biotza dagon orri. Garai artan etze-  
gon itxas-bazterretik pasiatzeko biderik, gaur dago-  
na geroztik egiña da, ta goitik itxasoraño amiltzega  
edo aldapa besterik etzegen.

---

Ikusi: "Colección Manterola, 34'garren orri-aldea".

"Bilintx - Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak",  
1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.'ren etxean.  
(Euskal Eснаlea'k argitara-arazia): 1/7 igualatzeko  
("nere" gabe).

"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan,  
Errenderi".

"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani":  
9/8: pozgiroz betia.

J U A N A B I X E N T A O L A B E  
JUANA BIXENTA, NAGUSI JAUNA ETA  
MORROYA.

*Hurra-Papito-ren doñuan*

1/ *J. Bixenta:*

Nagusí jauna, auxen da lana,  
amak bigaltzen nau berorregana.

*N. Jauna:*

Ai, bigalduko bazinduke maiz,  
zu ikusita konsolatzen naiz,  
sinista zazu,  
joso zoraturikan nakazu!  
¿orren polita nola zera zu?

---

(1) Manterola'k etzitun bertso auek argitaratu bere **Cancionero Vasco'n** bañan ontako itz-aurre batean (2.<sup>a</sup> serie, Tomo I) alaxe dio: "Como moralista escribió en los últimos años de su vida su composición Juana Vishenta Olave, de carácter verdaderamente popular,..."

**Euskal-Erria** aldizkariak, año 1880, auxe dio: "En el estanco de la viuda de Bizcarrondo se ha puesto a la venta, a precio de diez céntimos el ejemplar, la canción popular "Juana Vishenta Olave", del malogrado poeta easonense Vilinch".

2/ *J. Bixenta:*

Amak esan dit etxeko errenta,  
pagatzeko dirurik ez zuen ta,  
ia egingo diyon mesere,  
illabetian geyenaz ere,  
itxogotia,  
bada zierto dala ematia,  
pasa baño len illabetia.

3/ *N. Jauna:*

Logratutzia, errex alare,  
naiz ori ta beste zernai gauza're,  
seguru dala esan amari,  
zu baldin bazatoz mandatari;  
dudarik gabe,  
nere borondatiaren jabe  
zu zera, Juana Bixenta Olabe.

4/ *J. Bixenta:*

Beraz bertatik nua etxera,  
poz aundi bat amari ematera;  
orain ariyo, nagusi jauna,  
presaka jua biat amagana.

*N. Jauna:*

Ez zuazela;  
portatu zaite nik nai bezela,  
gaur etxera jua ez zaitezela.

- 5/ Zuen etxia dago irruti,  
birian zer gerta izan bildurti,  
bada iya pasa da eguna,  
arratsa berriz dator illuna,  
orain juatia  
txartzat iruki, nere maitia,  
gaur emen bertan gera zaitia.

6/ Ez juan etxera bire oyetan,  
gabaz, bakarrik eta illunbetan;  
kontura erori zaitia zu,  
gabaz illunbian juan biazu  
peligro aundiz,  
eta obe dezu eun aldiz,  
biyar goizian juan egun argiz.

7/ *J. Bixenta:*

Ezetz etsiya egon liteke,  
ni emen gelditu ezin niteke,  
amak espero nau gaberako,  
eta ark espero naubelako,  
juan biar det nik;  
alaba ikusi bagetanik,  
amak izango ez luke onik.

8/ *N. Jauna:*

Emen zuretzat dira parako  
jaki txit goxuak afaitarako,  
erariya berriz ¡Jaungoikua!  
illak piztutzeko modukua,  
ardo ondua,  
ontzen urtietan egondua,  
Malagatikan da bigaldua.

9/ *J. Bixenta:*

Jauna, berorrek, bañan alferrik,  
badaki armatzen lazo ederrik,  
lazua eiz bage gera dedin,  
nere etxian nai ditut egin  
afaldu ta lo,  
nayago ditut ango bi talo,  
ta ez emengo milla erregalo.

- 10/ *N. Jauna:*  
 Biyotz nereko dama polita,  
 asmoz muda zaite, auxen tori ta:  
 amasei duroko urre fiña,  
 sendatu nai zazun nere miña.
- J. Bixenta:*  
 Ez, jauna, ez ez;  
 merezi bezin kopeta beltzez,  
 esango diyot ezetz ta ezetz.
- 11/ *N. Jauna:*  
 Gañera berriz, Juana Bixenta,  
 utziko dizutet etxeko errenta,  
 kito zor dirazuten guziya,  
 kunplitzen banazu kutiziya.
- J. Bixenta:*  
 Lotsa gogorra,  
 sufritzen dago gaur nere onra,  
 penaz malkuak darizkit orra.
- 12/ *N. Juana:*  
 Nik ditut kulpak, ez egin negar,  
 orlakorik ez nizun esan bear;  
 animan sentitutzen det miña,  
 zuri ofensa ori egiña,  
 ¡maldiziyua!  
 ez dakit nun nekan juiziyua,  
 eskatzen dizut barkaziyua.
- 13/ *J. Bixenta:*  
 Barkaziyua du ta eskatu,  
 nere biyotz onak ezin ukatu;  
 erakutsi ditalako, jauna,  
 gaitz egiñaren damutasuna,  
 konforme nago;  
 ez egin ta ofensa geyago,  
 gaurkua oso aztutzat dago.

14/ *N. Jauna:*

¿Berriz nik egin zuri ofensa?  
jarren orlakorik ez bada pensa!  
zaukazkit neskatxa fin batetzat,  
eta gusto aundiz emaztetzat  
artuko zaitut;  
biyotzetikan esaten dizut,  
zuretzat ona baderizkizut.

15/ *J. Bixenta:*

Ori egiaz baldin badiyo,  
neregana egon liteke fiyo;  
bañan usatuaz kortesiya,  
ama neriari lizentziya  
eska bezayo.

*N. Jauna:*

Ori gustora egingo zayo,  
biyar goizian juango naitzayo.

16/ *J. Bixenta:*

Banua orain.

*N. Jauna:*

Atoz onuntza,  
birerako artu zazu laguntza;  
adi zazu, morroi Jose Juakin,  
etxera farolan argiyakin,  
aingeru oni  
gaur zuk laguntzia da komeni,  
kezketan egon ez nariyen ni.

17/ *Morroyak:*

Aingeru ari lagundu eta,  
orra, jauna, egin ostera buelta;  
birian bai bildurtxo zan bera,  
bañan allegatuta etxera,  
kontentu zegon;  
orain kezketan ez du zer egon,  
oyera jua ta pasatu gau on.



- 18/ Eldu zanian urrengo golza,  
nagusiyak zuen kunplitu itza;  
juan zitzayon amari etxera,  
andretzat alaba eskatzera,  
amak txit firme,  
artuta gero milla informe,  
gelditu ziran biyak konforme.
- 19/ Andik zortzi bat egunetara,  
edo amar ziran ez dakit bada;  
ez, amar ezin zitezken izan,  
andik zortzi egunera elizan  
ezkondu ziran;  
ezkondu ta etxera segiran,  
jendia franko bazuten jiran.
- 20/ Bost illabete edo sei ontan,  
ez dirade beti egondu lotan;  
eman dute zenbait jira-bira,  
eta gozatutzen bizi dira  
ditxak ausarki;  
obeto ezin litezke arki,  
espero dute aurtxo bat aurki.
- 21/ Dama gaztiak, ez egon lotan,  
begira zaitezte ispillu ontan;  
gustatuta birtute ederra,  
andretzat artu bere maizterra  
du nagusiyak;  
orla irabaztera graziyak,  
saya zaitezte beste guziyak.

*Debekatuta dago kanta obek, iñork molde-  
ko letrakin paperian ezarritzea, beren sortza-  
liaren baimena bage. Bada onentxen bere be-*

*riak dirare, eta ontan faltatzen duenak izango du legiak agintzen duen kastigua.*

*“Donostiyan” Juan Oses-en molditegian*

**Ikusi: Bertso-papera:** “Donostiyan: Juan Oses-en moldiztegian”. New Library, Chicago. (Au izango da lenengo argitaraldia).

**Bertso-papera:** “V. Iraola-ren litografiyan”, (Colección de J. Manterola) 37'garren orria.

**Bertso-papera:** “Eibar - Imprenta de Pedro Orue”. Bibliothèque Nationale, Paris. (Onek eskuz idatzita auxe du: “Pris a Durango, 1891”).

**Bertso-papera:** “Imp. de B. Valverde - Irún”, Gertrudis Arrieta, Errenteri: 2/2: ez nuben ta; 7/4: eta ere espero: 13/2: nere biotz onak ukatu. (Iru oker auek urrengo bertso-paper danak dakarzkite).

**Bertso-papera:** “Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún”, Manuel Urreta zana, Tolosa.

**Bertso-papera:** “Imp. de S. de Diego. - Eibar”, I. Lopez-Mendizabal, Buenos Aires: 13/1: Barkaziyua du ta eztizu; 14/1: ¿Berriz nik egin ta ofensa?

**Bertso-papera:** “Imp. de S. de Diego. - Eibar” (beste argitaraldi bat), Francisco Lasa, Zaldibarren, Bidania: 13/1 ta 14/1: aurrekoan bezela.

**Bertso-papera:** “Guernica: A. de Goitia y Compañía”, Gregoria Ibargoyen, Orío, 13/1: Barkaziyua du ta eztizu; 19/2: puntu au falta da; 19/3: edo amar ezin zitezken izan.

**Bertso-papera:** “Imprenta Goitia y Compañía, Guernica”, Alzalegi baserria, Berriatua, Ondarroako J. M. Etxaburu'ren bitartez: 4/7: puntu au falta da; 13/1: Barkaziyua du ta eztizu; 19/2: puntu au falta da; 19/3: edo amar ezin zitezken izan.

**Bertso-papera:** “Guernica. - Imp. Artística Goitia y Hormaechea”, Jose Goicoechea, Amaro, Tolosa: (dan dana aurrekoan bezela).

**Fakundo Adurriaga “Besamotza”, Tolosa, eskuz idatzitako bertso mordoa.**

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak,** 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>ren etxean", Euskal-Esnalea'k argitarara-arazia: 12/6: ez dakit nun neuken nere juiziyua.

**Aitor Mezo, Lejona,** bere aita zanaren eskuz idatzitako bertso-mordoxka: 1/2: bañan bialduko bazinduke maiz; 2/6: badala zierito ematia; 13/: Barkaziyoa dit eskatu; 16/3: Joxe Mari.

**"Colección de Ramón de Apaolaza":** 3/1: ori ta beste zernai gauz ere; 6/: bertso au dana falta da; 7/2: ni gaur emen gera ezin niteke; 8/6 urtietan ontzen egondua; 12/2: orlakorik ez nuben esan bear; 14/1: Nik zuri egin berriz ofensa; 17/7: oyerá jua ta igaro gau on; 18/4: alaba andretzat eskatzera; 20/2: ez dira egondu beti lotan.

**"Bertsolariya",** 14, 1931: 12/6: ez dakit nun neukan nere juiziyua.

**"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi":** 12/6: ez dakit nun neukan nere juiziyua.

**Juan Aguirre Gaztambide, Urdazubi,** eskuz idatzitako bertso-bilduma: 2/2: ez nuben ta; 4/7: puntu au falta da; 6/6: obe duzu anuntz aldiz; 7/4: eta ere espero naubelako; 12/2: alakorik ez nizun esan bear; 13/1: Barkaziyoa du ta eztizu / nere biotz onak ukatu; 14/3: zuazkit neskaxa fin bateztat; 19/2: puntu au falta da; 19/3: edo amar ezin zitezken izan.

**Estanislao Urruzola, Tolosa,** eskuz idatzitako bertso-mordoa.

**"Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I", Makazaga, Errenderi:** 2/3: ia egingo al diyon mesere.

**J. M. Etxaburu, Ondarroa,** eskuz idatzitako bertso mordoa: 5/1: ez dago urruti; 6/3: kontura etorri zaitia zu; 7/7: amak ez leuke egingo onik.

**"Gure Kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián":** 12/6: ez dakit nun neukan nere juiziyua.

**"Revista Trama, Gráficas Valverde, San Sebastián, núm. 4".** (1962).

## DAMA TA GALAYA

*(Ai ori begi ederra-ren doñuan)*

1/ *Galayak:*

Dezu gorputz egokiya,  
polita txit arpegiya  
eta ederra begiya  
zure begiya  
agitz argiya  
da guztiyetan aurrena;  
bestiak dira urrena,  
ori da ta ederrena,  
diruri eperrarena.

2/ Ez det, dama begi eder,  
desiatzen beste ezer,  
bañan bai... esango det zer:  
legezko birez,  
faltsiyakin ez,  
zu neretzako logratu;  
nik orla naya obratu,  
txantxa dala ez pentsatu,  
zutzaz naiz enamoratu.

- 3/ Konformatutzen bazera,  
 laster ezkonduko gera,  
 ez galdu orlako era:  
 biyok munduan  
 bizi moduan  
 artutzen badegu parte,  
 asnasiak iraun arte,  
 jakiñian gera zaitte,  
 nik izango zaitut maite.
- 4/ Millaka ditut ardiyak,  
 larogei ta lau ariyak,  
 mardulak eta guriyak:  
 zezen eta bei  
 berreun ta ogei,  
 sei eun eta bost iriyak  
 baita're soro aundiyak,  
 belar ugariz jantziyak,  
 mantendutzeko guziyak.
- 5/ Nik ori guztiya daukat,  
 ez balitz bezela deus bat,  
 badet eta beste gauz bat:  
 giltzaz azpiyan,  
 leku itxiyan,  
 dakat montuan billbilla,  
 urrezko zenbait kurpilla,  
 uraxen bai dala pilla,  
 ontzako utsak lau milla.
- 6/ Dauzkatanaren giltzaz be  
 zu egingo zaitut jabe,  
 bazeudeke duda gabe:  
 bada, begira,  
 izango dira,  
 orra eman notiziyak,  
 zure kontura utziyak,  
 dituzu ta mereziyak,  
 etxeko giltza guziyak.

- 7/ Zer ongi biziko geran,  
 nai dezuna jan ta eran,  
 guztiya zure aukeran:  
 jazteko ere,  
 zuk ez batere  
 gastuari begiratu,  
 dendik onenetan sartu,  
 gayik ederrenak artu,  
 eta soñak enkargatu.
- 8/ Alaja zale bazera,  
 juango gera esatera,  
 alajategi batera:  
 erakusteko,  
 zuk ikusteko,  
 dakaten alajeriya,  
 naiz bada're gariztiya,  
 izango da erosiya,  
 gustatzen zaizun guziya.
- 9/ Zu serbitzeko nik ortan,  
 gauz oyek erriya ontan  
 ez daude denda inontan:  
 ta eroatera  
 erri bestera  
 egingo degu, bai, jira,  
 nai badezu Donostira,  
 edo bestela Frantzira,  
 ango zuk naizun errira.
- 10/ Esaten dizkizutanak,  
 dira ta ziñez esanak,  
 kunplituko ditut danak:  
 fiyatu zaite,  
 nik zaitut maite,  
 eta jakin zazu ezik,  
 zugatik ez dala kasik,  
 egingo ez nuken gauzik  
 gusto aundira ta pozik.

- 11/ Zutzaz enamoratua,  
nago kasikan artua  
illaren erretratua:  
miñik txarrena,  
dakat barrena,  
animaraño sartua,  
au legoke sendatua,  
gauza bat desiatua  
nik baneka logratua.
- 12/ Sendako litzaiket miña,  
bestela senda eziña,  
zu neretzako baziña:  
azken ortara  
ni nua bada  
gutziz intentziyo onez,  
jezin liteke ta obez,  
arren esazu faborez,  
neretzat zeran edo ez!
- 13/ *Damak:*  
Dirazu naitasun fiña,  
gozua ta atsegiña,  
obiagorik eziña:  
jakin naizuna  
da erantzuna,  
esatiakin onela:  
alaxen banitz bezela,  
zierto egon zaitezela,  
zuria izango naizela.

14/ *Au nik diyo:*

Ara gauzak nola diran,  
egun artatik segiran,  
biyak alkarrenak ziran:  
ordu ezkeru,  
au zan espero,  
kunplituta berak naya,  
ongi daudela da baya,  
pasilaz bizi alaya,  
gure dama ta galaya.

15/ Egiya nik esateko  
ez zebiltzan ezkontzeko  
geldi geldi egoteko:  
galayak obra,  
seguru sobra,  
aurreratua darama,  
egin dirala da fama,  
bat aita, bestia ama,  
gure galaya ta dama.

### *Bilintx*

Donostiyan: —*Juan Oses-en moldiztegiyan*

---

Ikusi: "Colección Manterola, 35'garren orrialdea", Bertso-papera. (Batere dudarik gabe, paper au Bilintxen denborakoa da).

"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani":  
2/3: orain esango dizut zer; 2/5: faltsiyarik ez;  
2/7: nik ala naya obratu; 3/2: biok ezkonduko gera;  
7/8: gayik ederrena autu; 10/6: ta jakin biazu ezik;  
13/ Damaren erantzuna; 13/1: Dirazu maitasun fiña;  
13/8: zindo egon zaitzela; 14/8: iralkiz bizi alaya.



## KANTA

Izar argi bi falta dirala  
zeruan sortu da gerra,  
¿al dakizu nork ostu dituen,  
beltxeran begi ederra?

El Cantar original de D. Ventura Ruiz de Aguilera, que sirvió de modelo al poeta donostiarra, dice así:

En el Cielo hay alboroto  
porque faltan dos luceros,  
¿sabes quién los ha robado  
morenita de ojos negros?

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 28'garren orria, periodiku puska txiki bat. (Ez da ageri zein periodiku dan).

"Cancionero Vasco - J. Manterola, 1.<sup>a</sup> serie, Tomo II, Diciembre de 1877".

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911. Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean", Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

Cancionero Vasco'n dagon bezela jarri degu emen. Bertso-bilduman dagon periodiku puska zarragoa izango da, bear bada. Ontan aurrena erderazkoa dator, gero euskerazko, ta urrena alaxe dio: "¿Cuál tiene más mérito, el original o la traducción?"

## SOMAKETA (1)

Nere bata ta biya da  
somatzen errexá dana,  
bada zerorrek dauzkazu  
esku bakoitzian bana.  
Bata ta laba da berriz  
Gipuzkoako erri bat,  
zeñetan arkitutzen dan  
beste iñon ez dan arri bat.  
Nere irua ta laba  
berekín daukan dirua,  
ontzat artzia erozeñek  
ez da gauza segurua,  
batez ere baldín bada  
baliyo aundiko moneda,  
ez du gutxik galdetuko:  
—“Au gero fiña ote da?  
Ez da txit katolikua,  
¿zer derizkizu, Iñaxi?  
—“¿Neri? faltsua derizkit.”  
—“¿Eta zuri, andre Graxi?”.  
—“Arrira bota zazu ta  
soñua egin-arazi,

---

(1) Garai artako periodikuetan-eta, oso modan zeuden **somaketa** auek.

ez badu soñua fiña  
ganbiyatutzen ez asi.”  
Irua eta bigarrena  
da gizonaren desditxa,  
ala pegatzen zayona  
nun balitzake tximitxa;  
pegatzen da txit errexu,  
apartatutzen txit gaitza,  
alako asko izatetik  
Jaungoikuak libra gaitza.  
¡Zer afariya! ogiya,  
botilla bat ardo eder,  
ta ongi jarriyak lautxo bat  
nere irua bi bider.  
Batari eta biyari  
laugarrena itxeki ta,  
beste asko're bai baño  
donzella da txit polita.  
Eta da nere guziya  
desiatua, gauz ona;  
indartsu arkituko da  
berekín naükan gizona

\* \* \*

Somaketa onentxen itza  
(sayatu zaitezte denak)  
propina ona izango du  
zer dan asmatzen duenak.  
Logratzen duen arentzako  
daukazkit siñalatuak,  
loteriyako lau billete...  
(orain bi urte artuak)

### *Bilintx*

Ez det jarri *Bilintx* ori, somaketa neronek  
sortua dan patxandiyaz.

¡Zer erregalua! Baizik eta jarri det asma-  
tzia logratzen duen arrek, jakin dezan noren-  
gana biar deben giyatu, menturaz nai balu  
egin billete oyen jabe. (a)

\* \* \*

Teatroko dendan,  
zeña ikusten dan  
aspaldi guziyan  
kale nagusiyan,  
aurreko etxearen,  
etxe eder aren  
beraren onduan,  
paper abek ¡duan!  
an ematen dira;  
ez iritzi mira,  
ez milagro egin,  
egiya da berdin.  
Eta balitz norbait  
badakanik zerbait  
duda gauz orretan,  
bijua, ta bertan  
artuko du proga,  
au ez dala droga,  
baizikan egiya,  
ta egi garbiya.  
Bada au diyonak,  
konseju txit onak  
txiki txikitandik  
gurasuakgandik  
artuak izan ta,  
ez daki sayatzen  
iñor engañatzen  
gezurrak esan ta.

---

(a) Inoxente egunian emango diyozkat.

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 36'garren  
orria, inprentaren izenik gabeko kanta-papera.

## GAZTETAN JARRIYAK DAMA BATI (1)

- 1/ Argitasun aundiko  
perla gariztiya,  
nere osasuna ta  
nere eguzkiya;  
baita ere zu zera,  
maitetxo eztiya,  
mundu ontako nere  
desio guztiya.
  
- 2/ Ezin fiñago dala  
da txit segurua,  
zukanako dakatan  
naitasun purua;  
beti dauzkat zugatik,  
nere aingerua,  
sentitzen biyotza ta  
pentsatzen burua.

---

(1) Manterola ala dio: "Como lo expresa su título, esta composición, hallada entre los manuscritos de Vilinch, de su puño y letra, es una de las escritas por éste allá en sus mocedades. ("Cancionero Vasco", 2.<sup>a</sup> serie, T. I). Ta bere bertso bilduman: "Encontrado entre los papeles de Vilinch de su puño y letra. ¿Es inédito?"

- 3/ Ixilik gorde arren  
asko dira penak  
nere biyotz gaxuan  
zugatik daudenak;  
biazuna baño're  
minkatzago denak,  
bañan zuk nai ezker  
goza litezkenak.
- 4/ Dauzkatan pena oyek  
ixilik gordeta,  
uts biyurtuko dira  
zuk nai zazu eta;  
bertatik jarriko naiz  
kontentuz beteta,  
neria izatera  
konforma zaite ta.
- 5/ Ez naiz mutil ederra,  
¡au lana, au lana!  
ez naiz aberatsa're,  
¡maitetxo laztana!!  
bañan biyotz bat badet  
oberik ez dana,  
betia zukanako  
amoriyoz dana.
- 6/ Auxen eskeintzen dizut  
gutzizko suabe,  
¡arren egin nazazu  
zuriaren jabe!!  
bestela penaz il ta  
laister naiz lurraz be,  
bada ni ezin bizi  
niteke zu gabe.

---

Ikusi: **Bilintxen eskuz idatziak.**

"Colección de J. Manterola" 35'garren orria, eskuz idatzia.

**"Cancionero Vasco - J. Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878"**; 6/6: Onek asiera emanda, gañerako argitaraldi guziak lurra be diote.

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak"**, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxea, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

**Bertso-papera**: "Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún". (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian).

**"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani"**, makinaz idatzia: 4/4: zuk nai nazu eta; 5/7: betia zuretzako.

**Bertsolariya**, 31, 1932, Makazaga, Errenteri: 3/8: gora litezkenak.

**"Bilintx'en bertsoak, Makazaga'ren irarkolan, Errenteri"**: 3/8: gora litezkenak.

**"Cuaderno de Máximo Ugarte"**, Ariztimuño zanaren bertso bilduma.

**"Gure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián"**: 3/8: gora litezkenak.

**"Milla Olerki Eder, A. Onaindia, 1954"**.

**"Euskalerriko kanta zarrak, Tomo III"**, Makazaga, Errenteri: 3/8: gora litezkenak.

**"Euskal kantak"**, Donosti, 1959: 3/8: gora litezkenak.

NESKATXA BATI MUTIL BATEK  
JARRIAK (1)

- 1/ Goguan izango det,  
bai, gaurko eguna,  
berriro biyok alkar  
ikusi deguna:  
auxen da ditxa eta  
auxen da fortuna,  
zergatikan zu zeran,  
maitetxo kutuna,  
nere asnasia ta  
nere osasuna.

---

(1) Bertso auengatik Manterola'k alaxe dio: NESCACHA BATI MUT... (está roto el original: es posible que diga): ILL BATEC JARRIAK. (Está escrita de puño y letra de Vilinch: ¿será inédito? (Au bere bertso-bilduman dio).

(Ta bere Cancionero Vasco'n:) "Escrita de puño y letra de su autor en diversas e informes cuartillas que me ha costado trabajo ordenar, y con el título incompleto, pues sólo aparecen en el original las palabras Nescacha bati mut... por haberse roto un trozo del papel que lo contenía, he hallado esta composición entre los manuscritos de Vilinch.

Ignoro cuál sea la fecha en que pudo ser escrita, pero el aspecto y el estado de los originales me inclinan a creer cuenta bastantes años de existencia.

...He aquí ya esta producción, inédita hasta hoy:  
Esku artean izan ditugun Bilintxen eskuz ida-



- 2/ Egiyazko amoriyoz  
nai dizutalako,  
zugatik pasatzen det  
naigabia franko:  
jorain au poza, bistan  
zaukazkitalako!  
aspaldiyan ikusi  
ez zindutalako,  
jura bildurra nekan  
min zenuelako!
- 3/ Nere biyotzak jo zer  
poza duen artu!  
onen kolpiak ezin  
ditut aguantatu,  
bere lekutik dabil  
nayian faltatu,  
kanpora irten ez dedin  
biar det kalkatu,  
jgaxuak zuregana  
nai luke saltatu!
- 4/ Au nere zoramena  
zutzaz gustatuta,  
bildur naiz gera nadin  
burutik galduta,  
ainbesteraño nago  
enamoratuta,  
nai badezu ofietan  
belaunikatuta  
adoratuko zaitut,  
agindu zazu ta.

---

tzietan, orri batean, bertso-sail ontako lenengo ama-  
bi bertsoak daude. Manterolak dion bezela, izenbu-  
ru aldean puskatuta dago; tee eta gero a garbi irakur-  
tzen dira, eta bearbada mutil batek ateriak izango da.

5/ ¡Zer ote da graziyan (1)  
norbait erortzia!  
zu zerala meriyo  
jai, au erotzia!  
frankotan gertatu zait  
gogora etortzia,  
kanpantorrian gora  
korrika iyotzia,  
ta zure alabantzan  
kanpanak jotzia.

6/ Nik ezin sinistu det  
zuk esan dezula,  
nere amoriyua  
dudan dakazula,  
arren, orlakorikan  
pentsa ez zazula,  
eta nai det seguru  
jakin dezazula,  
beti bezela zure  
mende nakazula.

7/ Fiñ nabillen edo ez  
ez zaudezen dudan,  
ara zer juramentu  
egingo dizuran:  
ain amoriyo aundiz  
nola zu zaituran,  
maitatzen baldin badet  
besterik sekulan,  
ez dezatala izan  
parterik zeruban.

---

(r) Manterola'k graziyan jartzen du, ta gerok ere ala jarri degu, bañan eskuz idatzietan itz au ere arrapatzen du puskatuta dagon zatiak; g bat aurrean eta an atzean bat atzetik oso garbi irakurtzen dira. Bañan an orren aurretik ez du ematen y dagonik. Neri beintzat geyago iduritzen zait t bat dagola. Eta t baldin bada, zein ote da emengo itza?

8/ Zure graziyetara  
oso zoratua,  
biyotza sentitzen det  
enamoratua,  
ni bizi naizen arte,  
baratz loratua,  
dizdizara klarozko  
izar doratua,  
ez zaizu faltatuko  
nonk adoratua!!

9/ Ala dirurizu ta  
zaukazkit loreztat,  
baratzakuak baño  
oraindik obetzat,  
¿norentzako zera zu?  
¡loria, norentzat!!  
ez zenuke izan bear  
beste inorenzat,  
¡baizikan biyotzetik  
nai dizun onentzat!

10/ Lengo egun batian  
¡ai, San Antoniyo!  
doi doi egin zeniran  
kalian ariyo,  
badakit, sobra dakit,  
zer dala meriyo  
errezibitzen nazun  
orlako seriyo,  
¡zuk asko merezi ta  
nik gutxi baliyo!

- 11/ Aguro ezkontzeko  
dakat animua,  
bakarrik aspertu naiz,  
biat arrimua,  
obran zurekin jarri  
nai nuke asmua,  
bada, zumo gozo dun  
marrubi umua,  
zu nere miñarentzat  
zera balsamua.
- 12/ Aditzera detanez,  
dama begi alai,  
zure ondoren dabil  
makiña bat galai,  
bañan ayetakorik  
ez omen dezu nai,  
bada ni nai banazu  
izan zuk senar-gai,  
konformatzen al zeran  
**esan ez edo bai.**
- 13/ Bañan ikusten zaitut  
erantzun nai ezik,  
bayetzik esan gabe  
ain gutxi ezetzik,  
orla gelditutzia  
egin bage itzik,  
ezin pentsa nezake  
dala beste gauzik,  
senartzako artu nai  
ez nazula baizik.

14/ Senartzat nai al nazun  
egon naiz galdez ta,  
ez nazu bayetz esan  
ezetz ere ez ta,  
ori zuk ez dirazu  
nai esan itzez ta,  
beste modu batera  
baliya zaitez ta,  
igual da ematia  
kartaz errespuesta.

15/ Baldin ez banaitzazu  
sartutzen gogora,  
ez det asko pasako  
erriyan denbora,  
paraje abetatik  
juango naiz iñora,  
egun gutxiren barrun  
betiko kanpora,  
Buenos Aires'a edo  
Montevideo'ra.

16/ *Au nik diyo:*  
Ez dakit zer esaten  
ziyon errespuestan,  
baña nola mutilla  
Donostiyan eztan...  
falta zan egunetik  
pasa diranetan,  
onezkero sartu da,  
nere kontuetan,  
Montevideo'n edo  
Buenos Aires'etan.

---

Ikusi: Bilintxen eskuz idatziak.

"Colección de José Manterola", 28'garren orria,  
eskuz idatzia,

"Cancionero Vasco - José Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

**Bertso-papera:** "Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún": 14/2: galdezka. (Gregorio Mujika zanaren bertso bilduma, Donostian).

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak"**, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia: 5/3, 4: puntu au dana falta du.

**"Bertsolariya"**, 1932: 5/3, 4: puntu au dana falta du.

**"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi"**: 5/3, 4: puntu au dana falta du.

**"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani"**: 11/5: ortan zurekin jarri.

¡IZAZU NITZAZ KUPIRA! (1)

- 1/ Loriak udan intza bezela  
maite det dama gazte bat,  
ari ainbeste nai diyotanik  
ez da munduan beste bat;  
iñoiz edo bein pasatzen badet  
ikusi gabe aste bat,  
biyotz guztira banatutzen zait  
alako gauza triste bat.
  
- 2/ Neskatxa gazte pare gabia  
apirilleko arrosa,  
izarra bezin dizdizariya,  
txoriya bezin airosa;  
oraintxen baño gusto geyago  
nik ezin nezake goza,  
zori onian ikusten zaitut  
¡nere biyotzak au poza!

---

(1) Manterola'k ala dio: "Esta composición, inédita hasta hoy, y encontrada entre los papeles de su autor, escrita de su puño y letra, puede incluirse en el número de las mejores de Vilinch".

- 3/ Ez al dirazu antzik ematen  
nik zaitutala nayago,  
jai! mariñelak gau illunian  
izarra baño geyago,  
nere onduan zauzkatalako  
pozez zoraturik nago,  
zu ikustiak alegratu nau  
triste neguen lenago.
- 4/ Nik ainbat iñork nai dizunikan  
arren ez zazula uste,  
nere begiyak beren aurrian  
beti desio zaituzte;  
eguzkirikan ikusi gabe  
txoriya egoten da triste,  
ni ez nau ezerk alegratutzen  
zu ikustiak ainbeste.
- 5/ Arpegi fiña, gorputza berriz  
ez dago zer esanikan,  
izketan ere grazi ederra  
ezer ez dezu txarrikan;  
mundu guztiya miratuta're  
zu bezelako damikan,  
agiyan izan liteke baño  
ez det sinisten danikan.
- 6/ Nere betiko pentsamentua,  
nere konsolagarriya,  
zu gabetanik ezin bizi naiz  
esaten dizut egiya;  
zu baziñake arbola eta  
ni baldin banitz txoriya,  
nik zu ziñaken arbol artantxen  
egingo nuke kabiya.



- 7/ Amoriyuak nere biyotza  
 zureganuntza darama,  
 erri guziyan zeren dakazun  
 neskatx bikañaren fama;  
 beste fortunik mundu onetan  
 ez det desiatzen, dama,  
 aur batek berak izan gaitzala  
 ni aita eta zu ama.
- 8/ Falta duenak logratutzeko  
 itz egitia txit on du,  
 eta nik ere sayatu biat  
 ote gintezken konpondu;  
 gaur nagon bezin atrebitua  
 sekulan ez naiz egondu,  
 argatik golpez galdetzen dizut  
 nerekin naizun ezkondu.
- 9/ Ezkondutziak izan bear du  
 preziso gauza txarren bat,  
 ala esaten ari zait beti  
 nere konsejatzalle bat;  
 alaxen ere aren esanak  
 oso utzirik alde bat,  
 ongi pozikan artuko nuke  
 zu bezelako andre bat.
- 10/ Zerorrek ere ongi dakizu  
 aspaldi ontan nagola,  
 zuregatikan penak sufritzen  
 bañan ordia au nola;  
 alaxen ere nigana ezin  
 bigundu zaitut inola,  
 ni zuretzako argizaya naiz,  
 zu neretzako marmola.

11/ Nere biyotza urtzen dijua  
eta ez da misteriyo,  
penaren kargak estutu eta  
zumua kendutzen diyo;  
begiyak dauzkat gau eta egun  
egiñikan bi erriyo,  
beti negarra dariyotela  
zu zerarela meriyo.

12/ Zu zeralako meriyo baldin  
juaten banaiz lur azpira,  
gero damua eta malkuak  
alperrik izango dira;  
bein juan ezkerero oyen birtutez  
berriz ez niteke jira,  
ori gertatu baño lenago  
*!izazu nitzaz kupira!*

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 181'garren orria, eskuz idatzia.

"Colección de Aires Vascongados - J. A. Santesteban", bertso auek bakarrik: 1, 3, 6, 11, 12.

"Cancionero Vasco - J. Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

"Poesía Euskara", Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896.

Bertso-papera: "Valverde - Irún" (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian).

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

Julio Recalde, Tolosa, bere amagiarreba zanaren eskuz idatzitako kuadernua.

Aitor Mezo, Lejona, bere aita zanaren eskuz idatzitako kuadernua: 2/4: txoriya bezain airoa; 7/7: aur batek izan gaitzala ("berak" gabe).

"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani": 10/6: biurtu zaitut iñola: 11/8: zu zeralako meriyo.

**Bertso-papera:** "Guernica - Imp. Artística Goitia ta Hormaechea" (Severo Altube, Gernika): 1/2: maite dot; 3/1: ez al dirazu ematen ("antzik" gabe); 5/7: egiyak izan liteke baño; 6/7: arbola artatzen; 7/6: ez det desiatzen dana; 9/1: Ezkonduztian; 11/3: ostuta eta.

**Bertso-papera,** inprentaren izenik gabea: 6/6 ni banitzake txoriya; 7/4: neskatz ederraren fama; 11/8: zu zeralako meriyo.

**Bertsolariya,** 22, 1932.

"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan Errenderi": 12/1: "baldin" gabe.

**Juan Aguirre Gaztambide,** Urdax, eskuz idatzitako bertso bilduma: 3/1: Ez al dirazu ematen ("antzik" gabe), 3/3: gau egunian; 7/2: zuregana darama; 7/3: erri guzian zuk daukazun.

**Argia-ren** puska bat: 3/3: oi; 4/1: Nik aña iñork nai dizunik; 5/5: miratutzera; 6/6: ni baziñake txoria; 10/7: ni zuretzako argizaya - zu bezelako andre bat.

**Bertso-papera:** "Itxaropena Argitaldaria, Zarrautz": (Josefa Aizarna, Aizarna): onek aurrekoari kopiatzen dio, bere aurreko adierazpena ta guzi, baina 6/6: ni banitzake txoria.

**Argia-ren** berriz ere (21-IV-1935): 10/1: ondo dakizu.

"El Día", (1-V-1931): 5/5, miratutzera; 6/5: zu baziñake arlote eta.

**J. M. Etxaburu, Ondarroa,** eskuz idatzitako kuadernua: 4/4: beti oparo zaituzte; 5/5: mundu guztiyan; 5/7: izan diteke; 7/2: narاما; 11/8: zu zeralako meriyo; 12/3: gero negarrak.

"Euskal Erriko kanta zarrak Tomo II", Makazaga Errenteri.

**Gernika'ko Julio Bareño** jaunak bildutako bertsoak, makinaz idatzia: "Estos me los canta Alejandro Onaindía (72 años) y dice que los aprendió siendo muy joven de un bertso-papel o revista" (28-III-1959): 1/1: Txoria udan izan bezela - maite dot dama gaztia; 1/5: iñoiz edo bein pasetan bada; 1/8: alango gauza tristiaz; 2/5: oraintxu ainbat gusto munduan; 3/5: nere aurrian zaukadalako; 4: bertso

au dana falta da; 5/5: mundu guztian manieta ere -  
zu bezelako danikan; 6/1, 2, 3, 4: falta dira; 6/5:  
zu baziñake arbol artia - ni banitzake txoria / zu  
baziñian arbola artan; 7/3: zergaitik erri guztian  
dezun; 7/5: beste porturik; 7/8: aur batek beraz  
euki gaitzala; 8/2: agaitik beraz sayatu diat - ot'egin  
dezan konpondu; 8/7: argaitik beaz galdetzen di-  
zut; 9/2: preziyo gauza txarren bat; 9/3 ori esaten;  
9/5: alaxe neure orain esanak; 9/7 ondo pozikan;  
10/8: biurtu zaitut iñola; 11/5: begietatik gau eta  
egun; 12/1: Zu zariela medio berriz - joaten banaiz  
lurpera; 12/6: berriz ezin neike jira; 12/7: ori one-  
la gertu baño len.

**"Milla Olerki Eder, A. Onaindia, 1954"**: 6/6 ni  
banitzake txoria; 7/4: neskatxa piñaren dama; 8/3:  
sayatu bear; 10/7: ni zuretako argizaria; 11/8: zu  
zeralako merio.

**"Boga, boga"**, Donostian, 1959: 5/7: leiteke;  
6/6: ni banitzake txoria; 6/7 nik zu ziñaden; 7/4:  
neskatxa fiñaren fama; 8/3: sayatu bear; 10/4: or-  
dean; 10/7: ni zuretzako argizaria; 11/8: zu zeralako  
meriyo; 12/6: naiteke.

**Euskal kantanak, Donosti, 1959.**

**Euskal kantanak, Bilbao, 1960.**

## “AL CEFIRO” (1)

- 1/ Apirillaren lagun elkarra,  
saroi berdeko alaitasuna,  
Ama Venus'en asnase bigun  
aize laguna;
- 2/ Zuk badakizu zenbateraño  
arkitzen naizen penaz beterik,  
zeren ez nazu entzun izandu  
kejak besterik.
- 3/ Eraman izan dituzu iñoiz  
neriak zenbait adi ta negar,  
mendirik mendi, saroirik saroi,  
ibarririk ibar.

---

(1) Manterola'k ala dio: “Entre los papeles de Vilinch encuentro la siguiente traducción libre o imitación de los conocidos Sáficos de Villegas. Ellos prueban una vez más las aficciones literarias de Vilinch, y el cultivo que hacía de nuestros buenos poetas. Esta composición debe permanecer inédita, y está escrita de su puño y letra.” (Bere bertso bilduman).

- 4/ Zuaz ta esan zayozu nere  
anyerusari (2), nolzbait bezela  
ez baldin banau berriz maitatzen  
ilko naizela.
- 5/ Nere miñaren berri lenago  
jakiten zuen; eta nd miñez  
negon guziyan, bera egoten zan  
negar egiñez.
- 6/ Zori obeko beste denboraz  
maite ninduen ezin geyago,  
beste denboraz..., bañan ¡ai! orain  
aserre dago.
- 7/ Zuaz aguro, zuaz korrika,  
zuaz lasterka, egan juan zaite,  
eta esayozu, ilko naizela  
ez banau maite.
- 8/ Ala jaungoiko diran guziyak  
amoriyua dezaizutela,  
ala zeruak zure zori ona  
nai dezatela.
- 9/ Eta zuk egan ibillitzeko  
zein denboretan dezun atsegin,  
ez dezatela sekulan elur-  
-osto bat egin.

---

(2) Anyerusa, ninfa. (Manterola'k).

10/ Ain gutxiyago ditzala iñoiz  
oroi beltzaren kaskarabarrak  
eritu zure lore ostozko  
ego ñabarrak.

---

Manterola'k ala dio: "A continuación de su imitación reproduzco los sáficos de Villegas, para que los que conozcan la lengua vascongada puedan de este modo cotejar detenidamente y establecer un paralelo entre ambas producciones,... (Cancionero Vasco).

Guk ere ala egingo degu:

AL CEFIRO  
SAFICOS POR D. ESTEBAN MANUEL DE  
VILLEGAS (3)

Dulce vecino de la verde selva,  
huésped eterno del abril florido,  
vital aliento de la madre Venus,  
céfiro blando:

Si de mis ansias el amor supiste,  
tú, que las quejas de mi voz llevaste,  
oye, no temas, y a mi ninfa dile,  
dile que muero.

Fílis un tiempo mi dolor sabía,  
Fílis un tiempo mi dolor lloraba,  
quisome un tiempo; mas agora temo,  
temo sus iras.

Así los dioses con amor paterno,  
así los cielos con amor benigno  
nieguen al tiempo que feliz volares  
nieve a la tierra.

Jamás el peso de la nube parda,  
cuando amanece en la elevada cumbre,  
toque tus hombros, ni su mal granizo  
hiera tus alas.

---

(3) Villegas nació en Nájera (La Rioja), por los años de 1595. Cursó leyes en Salamanca. Murió el 3 de Setiembre de 1669. (Manterola'k).

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 34'garren orria, eskuz idatzia.

"Cancionero Vasco - José Manterola", 2.<sup>a</sup> serie, tomo I, abril de 1878".

Bertso-papera: Irun'en - Valverde'ren alargunaren etxean, 1909. (G. Mujika zanaren bertso bilduman): Izena: **Sartaizetxoari.**

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia: Izena: **Sartaizetxoari.**

"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani": Izena: **Sartaizetxoari.** 4/2: aingeruari.



## DOLORES'I (1)

¿Zein dan nai al zenuke  
jakin, daguena  
nere biyotz gaxuan  
sartua barrena?  
¿Bai? Banekiyen zala  
naiko zenuena.  
Beraz, jakin dezazun  
alik lasterrena,  
eskribitzera nua  
D ta O aurrena,  
L eta berriz O  
eleren urrena (2)  
R ta E ondoren,  
S bat azkena:  
orain letzen badezu  
segiruan dena,  
nere maite politak  
orla du izena.

---

Manterola'k ala dio bertso onengatik: "Encontrado entre los originales de Vilinch de su puño y letra". (Colección de José Manterola). "Esta pequeña composición, que forma parte de las inéditas de Vilinch..." (Cancionero Vasco).

Ikusi: **Bilintxen eskuz idatziak.**

"Colección de José Manterola", 31'garren orria, eskuz idatzia.

"Cancionero Vasco - José Manterola 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, abril de 1878".

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostia'n Martín, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

**Bertsolariya, 1932.**

"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi".

(Iñork ez du aldaketarik)

## BERTSOLARIYEN GUDUA

### 1/ *Peruk:*

Aizak, Txanton, Premiñi  
ik esan al diyok  
ez dikala irabazten  
bertsuetan iñork?  
¿beraz ni kontu ortan  
ire mende niok?  
nola itz egiten dekan,  
ai, mutil, begirok,  
¿nai dek jai lenenguan  
proga gaiten biyok?

---

(1) Bertso auek Manterola'k arkitu zitun, Bilintx il da gero, onen eskuz idatzitako paperetan. Ara nola dion:

"Pintar una de estas luchas (de bertsolaris) entre dos rústicos pastores que se disputan la gloria de ser "maestros en el arte de improvisar", tal es el objeto que se propuso Vilinch en su **Bersolariyen gudua**, cuyo fragmento, hallado entre sus originales, verán los lectores a continuación.

...Lástima es que de esta composición no nos hayan quedado sino escasísimos fragmentos,...

...los trozos que he podido conseguir, los ofrezco a los lectores del **Cancionero**, tal cual he podido sal-

2/ *Txantonek:*

Egiya dek Premiñi  
esan diyotala  
bertsuetan guziyak  
txautzen ditutala,  
eta esan badiyot  
Premiñi nik ala,  
oraindik niok itza  
mantentzen detala,  
¿uste al dek esana  
damutu zaitala?

3/ *Peruk:*

Ez zaikala damutu  
niok jakiñian,  
jakin eta alare  
sinist eziñian,  
ez dala bertsolari  
iñor i añian,  
abilidade asko  
dakak mingañian,  
progratu nai induketa  
gauza orren gañian.

..... (2)

---

varlos, por si pueden formarse una ligera idea de este trabajo inédito del malogrado poeta donostiarra." (Ikusi: J. Manterola, *Cancionero Vasco*, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878).

(2) Falta aquí indudablemente una estrofa que no existe en el borrador original, de puño y letra de Vilinch. (Manterola'k).

4/ *Peruk:*

Gauza orren gañian  
nai banak progatu,  
Txanton Aritzpekua,  
¿zer nai dek jokatu?  
orra kontra nork egin  
aguro topatu,  
¿nai dituk amar ardi  
demandan paratu,  
zeñek ederragoko (3)

..... (4)

5/ *Txantonek:*

Nere amar ardiyak  
orra, Peru emen,  
esaminatu itzik  
mardul ote dauden,  
mardularen tartian  
argalik daguen,  
mira itzik banaka  
bat bestien urren,  
oyek ez ditek izan  
falta belarraren.

---

(3) Bertso onek azken puntua falta du.

(4) Falta este verso en el original. Se conoce que al llegar ahí tuvo que suspender el poeta su trabajo por cualquiera causa. Las estrofas que siguen a ésta se encuentran en cuartilla separada, sin orden y con algunas enmiendas. (Manterola'k).

6/ Nere amar ardiyak  
ona emen, Anton,  
mira itzik banaka  
argalikan dagon;  
ez dituk iñoiz ere  
belar faltan egon,  
ez diyotek tatxikan  
billatuko iñon,  
uste diat daudela  
iriak bezin on.

.....

7/ Txanton ikusitzen det  
onuntz datorrela,  
Matz-peko Martin jauna  
jueztzat duela;  
edenki etorriya  
izan deriyela,  
orrek juzgatuko du  
gauza dan bezela,  
edo mundu ontako  
iñork ez bestela.

8/ Garaiko Premiñ dator  
juez Perurentzat,  
gizon obiagorik  
ez dala deritzat,  
ondo portatu izan da  
orain arte beintzat,  
mundu guziyan dago  
prestu eta fintzat,  
orrek ez du juzgatzen  
gorriya urdintzat.

- 9/ Garaiko Premiñentzat  
 ez da zer esanik,  
 sekulan ez du egin  
 biar eztan lanik;  
 gizon fiñagoen bat  
 mundu ontan danik  
 izan liteke baño  
 sinisten ez det nik,  
 fiya liteke orrengan  
 kezka gabetanik. (5)
- 10/ Martin Matz-pekuaren  
 fiyatu zaitezte,  
 gizon oberik iñon  
 danik ez det uste,  
 zeok zeon juezetzat  
 jarri gaituzute,  
 gugana konfiantza  
 beraz badezute.
- 11/ Txanton, neri ardiyak  
 ik irabazi? ¡ai!  
 koitadu triste orrek  
 ez uke gutxi nai,  
 desiatzen dek baño  
 ez aiz ordia gai,  
 gixarajua orrek  
 etsi ezakek bai,  
 alperrik egon gabe  
 ardiya oben zai. (6)

---

(5) Esta estrofa y la siguiente están indudablemente puestas por el poeta en boca respectivamente de los jueces Martín y Fermín, designados por los interesados para dirigir la contienda. (Manterola'k)

(6) Esta estrofa debe suponerse ya la 1.<sup>a</sup> del certamen, puesta en boca de uno de los contrincantes. En los papeles de Vilinch que he examinado cuidadosamente no he podido encontrar un sólo verso más que haga referencia a esta composición. (Manterola'k).

Ikusi: "Colección de José Manterola", 39 ta 40' garren orriak, eskuz idatzitako orria.

"Cancionero Vasco - José Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo 1.<sup>o</sup>, Abril 1878".

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitarara-arazia: 3'garrena ta 4'garrenaren tartean dauden puntuen alboan, "Txanton" ipintzen du, alegia, emen falta dan bertsoa Txantonek botia dala adieraziaz; 6/2: ona emen Txanton; 6'garrena ta 7'garrenaren tartean "Txanton" ipintzen du, len bezela. 7/: Peru; 8/: Txanton; 9/: Martin; 10/: Premiñ; 11/: Peru.

"Bertsolariya", 1932, dana Euskal-Esnalea'rena bezelaxe.

"Bilintx'en Bertsuak, Maķazaga'ren irarkolan, Errenderi": au ere Euskal-Esnalea'rena bezelaxe.

"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani": 4/: Txanton; 4/3: Peru Aritzpekua; 4/9: zeñek obeagoko - bertsoak kantatu; 5/: Peru; 5/2: orra Txanton emen; 5/5 edo mardul tartean - argalik ote den; 5/7: mira itzak banaka; 5/10: faltik belarraren; 6/2: orra emen Txanton; 6/10: ireak bezin on; 7/10: bestek ez bezela; 8/6: oraindño beintzat; 9/7: izan liteke bañan; 10/: Bertso au lau puntukoa dago Manterola'renean. Onek bostgarrena erantsi dio: eta juzgu eder bat - izango dezute; 11/1: Txanton, nere ardiyak; 11/4: ez ukek gutxi nai; 11/10: ardiya oyen zai.

Ariztimuño zanaren bertso-bilduma, Donostiko Lizaso ta Aranguren'tar Andonik bialdua. Onek bi bertso ta beste baten erdiya ditu. Bertso erdi ori nundik sortu duen, ezin somatu. Beste biak ere oso aldatuak daude. Oso osorik jarriko ditugu:

## D E S A F I O A

- 1/ Egi al dek Fermiñi esan diokala,  
bertsoetan iñork i austen ez auala...  
beraz kontu orretan ire mende niok,  
ñai al dek lenengora joka zagun biok?



- 2/ Egia dek Fermiñi esan ziotala bertsoetan inork ni austen ez nauala; esan baziot ere Fermiñi nik ala ¿uste al dek esana damutu zaidala?
  
- 3/ Etzekiat, bazekiat, enak artakua, bustiñakin egin leikek i bezelakua.

## POTAJIARENA (1)

- 1/ Egunaren izena  
ez dakit nola zan,  
baña señalagarri  
partidu bat bazan  
pelotan jokatzeko  
Oyarzungo plazan,  
nai det nere orduko  
gertaera esan,  
urrengoan beste bat  
eskarmenta dezan.
  
- 2/ Partidua jokatzek  
bukatu zanean,  
ostatura joan nitzan  
zuzen zuzenean;  
mayera jana ekartzen  
asi ziranean,  
apaiz bat serbitzen zan  
aurrén aurrenean,  
sartu zan makíña bat  
aren barrenean.

---

(1) Manterola'k ez digu ezer esaten bertso aue-  
taz, aitatu bakarrik: "...y en el género satírico...  
nos ha dejado su inimitable canción **Zaldi baten bi-  
zitza**, su **Potagiarena**, y algunas otras de menos im-  
portancia". (Cancionero Vasco, 2.ª serie, Tomo I).

3/ Nere ditxa guziak  
badute ajia,  
noski naiz Jaungoikoak  
astutzat lajia;  
goseak egin nuen  
ango biajia,  
kulpa zuenarentzat  
dakat korajia,  
apaiz batek jan zuen  
nere potajia.

4/ Zintzur ona zuela  
klaro señaleak  
eman zituen apaiz  
barbantzu zaleak;  
dozenaka tragatzen  
zituen aleak,  
maskatu ere gabe  
tripazai jaleak,  
alako aisa nola  
antxoa baleak.

5/ Pasatutzen zituen  
igar ta ezeak,  
ez ziran aren diña  
zetozen klaseak;  
agertu orduko zeuzkan  
tripara paseak,  
kortesia gabeko  
txapela luzeak,  
arrek naikoa jan ta  
ni berriz goseak.

- 6/ Geroztik ostatuan sartu ordurako, galdea egin gabe ez det nik faltako: egun artan apaizik ea dan arako, ez apaiz jaun guziak igualak diralako, baizik batek beldurra sartu ziralako.

---

Ikusi: "Colección de Aires Vascongados - J. J. Santesteban", Donostian.

Fakundo Adurriaga "Besamotza", Tolosa, eskuz idatzitako bertso-bilduma.

"Poesía Euskara", Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, San Sebastián, 1896; 4/2: ondo seña-leak; 4/4: baberrun zaleak; 6/5: egun artako apaiza ote dan arako; 6/8: berdin diralako.

(Emendik aurrerako danak, aurreko onek argitara-arazi zuana bezelaxe daude. Orregatik ez gera arituko bakoitzari aldaketarik jartzen.)

Bertso-papera: "Irun'en - Valverde alargunaren etxean - 1909". (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostian.)

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia; 4/2: ondo seña-leak; 4/4: baberrun zaleak; 5/1: Tragatutzen zitu- en; 6/5: egun artako apaiza - ote dan arako; 6/8: berdin diralako.

Bertso-papera, inprentaren izenik gabea (Arras-ku, Karrika, Oyartzun).

Aitor Mezo, Lejona, eskuz idatzitako bertso-bil-  
duma: (aldaketa bat geyago:) 5/10: gu berriz go-  
seak.

Bertsolariya, 19, 1932, Makazaga, Errenteri.

"Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I": (Alda-  
keta bat geyago): 2/1: Partidua jokutzen.

"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan,  
Errenderi".

**"Milla Olerki Eder, A. Onaindia, 1954".**

**Euskal Kantak, Bilbao, 1960.**

**"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani":**

Izena: Apaiz jaun batenak; 2/9: makiña bat sartu zan; 3/3: nunbait naiz Jaungoikoak; 5/1: Tragatutzen zituen; 5/5: ekarri orduko zeuzkan; 5/7: kortesirik gabeko; 6/4: ez diet lajako; 6/6: ote dan arako. (Gañera ez ditu nor bere tokian jartzen. Ala jarri ditu: 1, 2, 4, 5, 3, 6.)

## ORENTZARO (1)

- 1/ Zai egoten naiz luzaro  
eldu bedin Orentzaro,  
zergatik dan eguna  
zelebratzen deguna  
bazkariz eta afariz,  
eldutzen dan ainbat aldiz.
  
- 2/ Orentzaro izan ezkerro  
gure etxian urtero  
nola oroitzen zaitan  
egun artan bazkaitan  
ez da izango falta  
eltzian odolki galanta.
  
- 3/ Afari oberik berdín  
ez du beste inork egin,  
ez peseta franko're  
kostatu bazayo're  
ostaturik onenian,  
Martin Ezkurra'renían.

---

(1) Encontrado entre los papeles de Vilinch de su puño y letra. (Manterola'k).

- 4/ Orduko nere gloriyan,  
dantzan asteko zoriyan  
jartzen naiz geyenian,  
egiten dutenian  
arduak botillan klun klun klun  
gaztañak surtan pun pun.

---

Ikusi: "Colección de José Manterola", 31'garren orria, eskuz idatzia.

"Euskal-Erria", XI, 1880, 284'garren orria.

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak", 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.<sup>a</sup>ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

"Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan. Errenderi".

## KONTUA (1)

- Egun batian jua zan  
gizon bat kafera,  
beste askoren gisa  
zerbait artutzera,  
eta ango mutillak  
al zuen lenena  
eraman ziyon berak  
eskatu zuena.  
Sillan ixiririkan  
(10) deskantsu onian,  
komeni zitzayona  
artu zuenian,  
oju bat egin zuen  
soñu aundikua  
zeñetan deitu zuen:  
“Aizak, mutikua,  
ua galdetutzera

---

(1) Manterola'k ala dio: “Entre los originales de Vilinch encuentro en una cuartilla, cuyo color y estado implican alguna antigüedad, la siguiente composición... El original es de puño y letra de Vilinch.

Ta orriaren ertzean: “Esta composición carece de epígrafe o título en el original.” (Colección de J. Manterola).



- nagusiyagana,  
zenbat pagatutzen dan  
(20) nik artu derana.”  
Seyak ekarri ziyon  
zuzen mandatua:  
“Jauna, bost errial da  
bedorren kontua.”  
Gizona orduantxe  
trantzian zeguen,  
peseta bat bakarra  
besterik etzuen,  
eta eskañi ziyon  
(30) esanaz seriyo:  
“To, eta nausiyari  
eraman akiyo.”  
Mutillak esan ziyon  
artu ordurako:  
“Errial bat falta du  
emen konturako”.  
Arrek erantzun ziyon  
bere beriala,  
len alegiya ez aitu:  
(40) “¿Zenbat, erriala?  
¿ik ez dirak serbitu  
mandatu gilletzat?  
bien, errial ori  
gorde zak iretzat.”

---

Ikusi: “Colección de J. Manterola”, 36'garren orria, eskuz idatzia.

Euskal-Erria, I. 1880: “PAGATZALLE ON BAT”  
ontan deitzen zayo, ta geroztik izen ori izan du argitaraldi guzietan.

“Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak”,  
1911, Donostia'n, Martín, Mena, y C.<sup>a</sup>'ren etxean,  
Euskal-Esnalea'k argitarazia; 43: errial ori bada.

“Bertsolariya”, 25, 1932; 43: errial ori bada.

“Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan,  
Errenderi”; 43: errial ori bada.

## POBRIAREN SUERTIA (1)

- Beste alibiyorik  
pobriak ez daka,  
negarrez jayo eta  
bizi arrastaka,  
galtzarbian, kolkuan,  
nun nai arraskaka,  
erropetan koipia,  
zikiña ta kaka,  
jendiak ikustian  
(10) artutzen du laska,  
danak pasatzen zaizka  
ondotik presaka;  
nai baldin badu ibilli  
kalian bueltaka,  
ateratu orduko  
etxetikan anka,  
mutil txikiyak ditu  
atzetik millaka,  
azanariyo edo  
(20) patata tiraka,

---

(1) Manterola'k diona: Entre los papeles de Vilinch encuentro un cacho de cuartilla, de sabor ya antiguo, y escritos de su puño y letra los siguientes versos que podrían titularse: **Pobriaren suertia.**

zakurrak ere asten  
 zayozka zaunkaka,  
 aberiak tiratzen  
 diyote pullanka,  
 danak, kristau ta abere,  
 guziyak txandaka  
 gizarajua dute  
 ibiltzen burlaka,  
 batek obe luke izan  
 (30) pobre bañon kaka.

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 40'garren orria, eskuz idatzia.

Euskal-Erria, 2, 1881.

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia; 10: artutzen du nazka; 14: kalian jiraka; 19: azenariyo eta.

"Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani"; 8: zikiña ta kraka; 10: artzen dio nazka; 11: danak paastzen dira; 14: kalian jiraka; 19: azenariyo eta; 25, 26: (bi auek falta dira).

Bertsolariya, 25, 1932; 10: artutzen du nazka; 14: kalian jiraka; 19: azenariyo eta.

"Bilintx'en bertsoak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi: (dana Bertsolariya'n bezela).

## BIYOTZ ERITUA

1/ Askok diyote kantetan beti  
amore kontu naizela,  
nik esaten det arriturikan  
motibo gabe daudela;  
izer egin biat baldin zeruak  
doaitu banau orrela!  
¿ez dute ikusten usaya mendak  
bere jatorrez duela?  
nere biyotzak amoriyua  
mendak usaya bezela.

2/ Triste bizi naiz eta  
ilko banitz obe,  
badauzkat biyotzian  
zenbait atsekabe;  
dama bat maitatzen det  
bañan... aren jabe  
sekulan izateko  
esperantza gabe.

- 3/ Nere biyotz gaxua  
penatua dago,  
ezin egon liteke  
;ai! penatuago;  
pasatzen ditutala  
aspaldiyan nago  
egunak triste eta  
gabak tristiago.
- 4/ Amorez eritua  
zenbait denbora ontan,  
gaunik ez det pasatzen  
soseguzko lotan;  
penaren kargarekin  
urtuta, ;frankotan  
kanpora irteten zait  
biyotza malkotan!
- 5/ Auxen da miña laister  
il biar naubena,  
kupitutzen ez bada  
senda lezakena;  
ain arkitutzen zaizkit  
sartuak barrena  
animan tristura ta  
biyotzlan pena.
- 6/ Biyotza ezin jaso det,  
jau karga barrenak!,  
iya gastatu zaizkit  
indarrik geyenak;  
ez luke xinistuko  
progratu ez duenak,  
zenbat pisatzen duen  
egiyazko penak.

- 7/ Anima tristurakin  
 ain dakat negarti,  
 nun egin al dezaken  
 arriya bi parti;  
 adorantzak ematen  
 ;belauniko beti!  
 biyotzian daukatan  
 imajiña bati.
- 8/ Zein ote dan eziñik  
 kontura erori,  
 kutiziya jayoko  
 zayote askori;  
 nik ordian ez diyot  
 esango iñori,  
 berak badaki eta  
 bastante da ori.
- 9/ Nere maitatua da  
 guztiz dama fiña,  
 biyotz onekua ta  
 ondo itzegiña;  
 bentaja guztiyakin  
 zeruak egiña,  
 mundua pasatzeko  
 lagun atsegiña.
- 10/ ;Zertako desiatu  
 ditu gauza on oyek,  
 nere biyotz koitadu  
 gixaraxua onek?  
 kulparen kastigutzat  
 datozkit pena obek,  
 merezi ditutala  
 badakit neronek.

- 11/ Aingeru zoragarri,  
mirabe laztana,  
pentsamentu nerian  
beti zauzkatana;  
biyotzaren erditik  
maite zaitutana,  
zu zera neretzako  
nai zinduzketana.
- 12/ Nere amoriyua  
ain fiña izanik  
beti goguan zauzkat  
aztu gabetanik;  
ez da mundu guztiyan  
iñor kapaz danik,  
dama, zu maitatzeko  
ainbeste nola nik.
- 13/ Begiyaren aurrian  
beti nai zinduzket,  
ikusten ez bazaitut  
naibagia maiz det;  
gogoratu bageko  
minuturik ez det,  
amoriyoz maitatzen  
ez daki nik bestek.
- 14/ Etzaitut ikusitzen  
desio ainbeste,  
ditxa ori logratzen det  
iñoiz edo beste;  
eta ez detanian  
logratzia uste,  
¡ura triste ibiltzen naiz!  
¡Jesus, ura triste!

- 15/ Ezin bizi zu gabe  
 jau amoriyua!,  
 logratzen ez bazaitut  
 ;zer martiriyua!;  
 ez badezu desio  
 nere eriyua,  
 zuregan arkitzen da  
 erremeriyua.
- 16/ Erregututzen dizut  
 ;o Jesusen Ama!,  
 nitaz kupi derilla  
 maite detan dama;  
 biurtzen badirazu  
 biyotzera kalma,  
 kantaz banatuko det  
 milagruen fama.

### *Bilintx*

Donostian: *J. Baroja eta semeen moldiztegian.*

---

Ikusi: **Bertso-papera: Donostian: J. Baroja eta semeen moldiztegian.** (Antonio Arrillaga zana, Elgoibar) (Au da arkitu degun argitaraldirik zarrena; ontaz baliatu gera).

**Makinaz idatzitako paper bat.** (Juan Iturralde, "Juanito Kojua", Donostia) (Onek aurrekoari kopiatzen dio).

**"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak"**  
 1911, Donostia'n, Martin, Mena ta Ç.<sup>a</sup>ren etxean, Euskal Esnalea'k argitara-arazia; 1/3: beti orrela dau-  
 dela; 1/6: doaitu banau onela; 2/5: dama bat min-  
 tzatzen det; 7/5: maitasunak ematen; 8/8: naikoa  
 det ori; 9/1: Nik maite detana da; 10/3: nere biyotz  
 dontsua; 12/6: iñor gauza danik; 13/4: naigabia  
 maiz det.



**“Colección de Ramón de Apaolaza - Hernani”**  
(Makinaz idatzia dago): Lenengo bertsoa ez du; 3/2: penaturik dago; 4/7: biyotza irteten zait - kanpora malkotan; 6/3: iya bukatu zaizkiz; 8/5 nik ordea ez diyot; 8/8: naikoa det ori; 9/7: munduan izateko; 10/5: kulparen kargarekin; 13/4: naigabia maiz det; 13/5 gogoratu gabeko; 14/7: ura triste egoten naiz; 15/3: ez bazaitut logratzen; 16/7: kantuz banatuko det.

**“Bertsolariya, 194'garren orrialdea”:** (Onek Euskal Esnalea'koari kopiatu dio; aldaketa ber berak ditu ta beste au: 13/5: gogoratu gabeko.

**“Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Errenderi”.** (Bertsolariya bezelaxe).

**Ariztimuño zanaren bertso-bilduma, Elizondo'n,** 1933'garren urtean bildua, biltzalea Etxeberria'tar Bitori, (makinaz idatzia): Lenengo bertsoa ez du; 2/8: esperantzik gabe; 3/3: ezin egon baiteke; 4/5: penarekin kargarekin; 4/7: kanpora ateratzen zait; 5/3: kupitutzen bazait; 6/1: Biotza ezin posa det - an karga barrenak; 7/1: Anima triste zaigu; 7/3: non egiña dezake - arriya bi parte; 8/3: gutizia yayoko - lezayoke ari; 9/4: ongi itzegiña; 9/6: zerurako egiña; 9/7: munduan pasatzeko; 13/6: momenturik ez det; 14/2: desio ainbertze; 14/3: ditxo ori logratzen den - iñqiz edo bertze; 16/7: kantaz famatuko det - Milagrosaren fama.

**Andres Ezenarro “Urzelai”** zanaren eskuz-idatzitako bertso bilduman, Plazentzia: Bigarrena baka-  
rrik dakar ta era ontara; 2/3: mundu ontan badi-  
tut - ai zenbat naigabe / maite bat maitatzen dut -  
baña ni aren jabe / sekula izango nai zen... (Jauna  
au Irundarra zan jayotzez).

## KANPUAN DA (1)

1/ Izar maite nuena  
ain biyotz guztitik,  
juan zan Donostitik;  
orain neregandikan  
irrutiyen dago,  
bañan goguan dakat  
juan baño lenago  
itza eman zirala,  
denbora gutxi barrun  
etorriko zala.

2/ Tristetahun aundi bat  
juan zan ezkerotzik,  
senti det geroztik;  
zierto dakit ordia,  
berriz neregana  
etorritzen danian  
ain maite derana,  
poztuko naizela,  
goizaren etorreran  
txoriya bezela.

---

(1) "Copiado de sus originales". (Manterola'k).

3/ Dagolarikan ere  
nigandik irruti,  
ikusten det beti;  
erritikan juan arren,  
oroitzatik ezin;  
zeruaren erdiyan  
izar batek bezin  
argitasun aundiz  
nere pentsamentuan  
egiten du diz diz.

4/ Desiatua nago  
etorri deriyen,  
alegra nariyen;  
kontentu biziko naiz  
andikan aurrera,  
maitetxo neriaren  
edertasunera  
itxutua oso;  
emango diyozkat, bai,  
milla laztan gozo.

---

Ikusi: **Bilintxen eskuz idatziak.**

“Colección de J. Manterola”, 30'garren orria, eskuz idatzia. (Ala dio: “Copiada de sus originales”).

**Bertso-papera:** “Irun'en - Valverde alargunaren etxean - 1909” (G. Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian).

“**Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak**”, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>ren etxean, Euskal-Esnalea'k argitara-arazia; 1/5: urrutiyan dago, (Bilintxen bertsoetan, bein baño geyago agertzen da “irruti”. Beraz ez da uste gabeko okerren bat, ta ez degu ikutu nai izan, “urruti” jarriaz); 1/7: joan bañan lenago; 1/8: itzeman zirala; 1/9: denbora gutxi barren; 2/7: maitatzen derana; 3/4: ondotikan joan arren - oroitzatik ezin; 4/1: Desiatu-baz nago; 4/6: aingeru neriaren; 4/9: iskribatuko ditut - milla kantu gozo.

**Bertsolariya**, 31, 1932, Makazaga, Errenteri:  
Lengoa bezelaxe, kopiaitu egin zion nunbait.

**"Bilintx'en bertsuak**, Makazaga'ren irarkolan,  
Errenderi": (Bertsolariya-n bezelaxe).

**"Colección de Ramón de Apaolaza, Hernani"**,  
makinaz idatzia: Lengo biak bezelaxe, bañan beste  
aldaketa auek ere bai; 1/7: (puntu au falta da);  
2/4: zindo dakit ordea; 4/1: Nai gogorrean nago;  
4/3: alaitu nadiyen; 4/4: poz giroz biziko naiz.

## IRU ERREGEAK

Iru errege datoz  
kale nagusitik,  
ardo bete beteta  
ezin egon txutik;  
Meltxorrek eltzen diyo  
Gaxparri besotik,  
ez muturrez aurrera  
erortziagatik.

---

Ikusi: "Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donosti'an, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean", Euskal-Esnalea'k argitara-arazia. (Ez du esaten nundik jakin dun bertso au Bilintxena dana).

## NIK AU PENTSATU NUEN

Nik an pentsatu nuen  
bein zu ikusita,  
ori bai dala guztiz  
neskatxa polita;  
nai balu nere izan  
gaude ezkongai ta,  
maiteko nuke nola  
ama eta aita,  
nere biziya baño  
geyago're... baita.

---

Ikusi: **Bilintxen eskuz idatzia.** (Bertso au Ondarrian, F. Artola "Bordari"-renean).

"Colección de J. Manterola", 28'garren orria, eskuz idatzia.

(Bertso onen buruan, Manterola'k auxe dio: "Vilinch-en azquenenco versoac". Dagon tokiagatik, pensa diteke bertso onen izena dala, bañan "versoac" esaten du, beraz ez da bertso bakar bati dagokiona, ta gañera, irakurri ta ez du ematen Bilintxen azkenekoa izan ditekenik. Bertso onen atzetik eskuz idatzitako bertso asko datoz, danak edo geyenak Bilintxen paperetatik artuak. Orregatik, gure iritzia da, iru itz oyek ez dutela bertso ori bakarrik markatzen, baizikan ori eta orren atzetik datozen guztiak).

## ¡BEGIROZUTE PIKADORIAK!

Jaunak, seguru nago,  
gaur arratsaldian  
pikadoriak ondo  
portatu baziran,  
festa ederra izango zan,  
zezen onak ziran;  
bañan ¿pikadoriak?  
¡beti pikardian!  
zezen bat on xamarra  
irtetzen danian,  
etzayozka jarritzen  
aurreko aldian,  
nola itzul egiña  
dakaten artian.  
Eta suertatzen bada  
txiripa batian  
zezen bat txit brabua  
bere errabian,  
pikara sartzen dana  
furia aundian,  
¿zer egiten diyote?  
urrengo sartzian  
pika jartzen diyote  
besoen gañian,  
eta sartu ezker  
pika bein andikan,  
zezen gizarajuak  
ez du indarrikan,  
kojo gelditutzen da

beso artatikan  
 eta berriz pikara  
 egotzigitikan  
 ez diyo zaldiyari  
 sartzen adarrikan,  
 beso-buruan dakan  
 eridagatikan;  
 bañan Presidentiak  
 ala pikatzian  
 deituko baliyoke  
 instante batian,  
 eta bere aurrera  
 etortzen danian,  
 esango baliyoke:  
*“Atienda V., perillán,  
 por haber espaldillado  
 de ese modo al animal,  
 300 reales de multa  
 y páguelos sin replicar,  
 y tenga V. mucho cuidado  
 en no volver a espaldillar,  
 porque entonces, se lo advierto,  
 multa doble recibirá.”*  
 Gaur egin baldin bazan  
 ori Donostiyan,  
 orduan seguru naiz,  
 txit seguru, biyar  
 ez pagatziagatik  
 iru eun errial,  
 pikatuko zutela  
 biar dan legian.  
 Bañan gaur orren ondo  
 nola irten diran,  
 pikatuko dituzte  
 gaur bezela biyar.  
*Au aditu niyon nik  
 atzo arratsian  
 gizon sudur motz bati  
 taberna batian.*

---

Ikusi: “Colección de J. Manterola”, 29'garren orria, eskuz idatzia.



## ZORTZIKO

*cantado "a beneficio de los heridos" por varios jóvenes del antiguo Orfeón la noche del 5 de Enero de 1874.*

Ikusita desgrazi  
erituarena  
¡penaz nori etzayo  
urtzen biyotz dena!;  
da oyeri ematea  
nor al dezakena,  
zerua irabazteko  
obrarik onena.

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 31'garren orria, eskuz idatzia.

## ZALDUN GAZTE (1)

1/ Zaldun gazte bozal egoki batek  
esan ziyon batian Filys'i:  
"Zeru eder maite maitagarriya,  
¿nai al dezu zuk nerekin bizi?  
aberatsa naiz zuri kunplitzeko  
nai dituzun ainbeste kutizi,  
ukatzeko prebenitu baña len,  
ondo pentsatu zazu lenbizi."

2/ Galayari esan ziyon Filys'ek:  
"Nere aurretik zuaz beriala,  
¿uste al dezu lenagoko faltsiyak  
orren laster aztu zaizkirala?  
igartzen det zure eskeñi denak  
fintasunik gabiak dirala,  
nayago det onrakin pobre bizi,  
ez aberats onrik ez derala."

---

(1) Manterola'k ala dio: "Entre los mismos papeles encuentro la siguiente composición, que debe ser también traducción; carece de título y debe ser inédita".

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 34'garren orria, eskuz idatzia.

## AROTZ BATI ZIYOTEN (1)

- 1/ Arotz bati ziyoten  
mandatua laja,  
al zuen azkarrena  
egiteko kaja,  
Don Gaspar Lizarralde  
ipigandu zedin.
  
- 2/ Arotzak esan ziyon  
mandatariyari,  
nik artu biar diyot  
neurriya berari,  
kaja gorputzarentzat  
justu irten dedin.
  
- 3/ —“¿Eta nora juango naiz  
artzera neurriya?  
—“Done Migel kalera,  
etxe bat berriya  
an ikusiko dezu,  
balkoi urdinduna.

---

(1) Manterola'k ala dio: “De puño y letra de Vilinch”.

- 4/ Bigarren bizitzara  
 jua zaitia blla,  
 an arkituko dezu  
 pulmoniyak illa  
 kaja lenbailen egin  
 biar diyozuna”.
- 5/ Juan zan gure arotza  
 listoy bat artuta,  
 eta esan ziyoten  
 etxera sartuta,  
 bigarren bizitzara  
 iyo zan aguro.
- 6/ Bañan iyo zanian  
 kezketan jarri zan.  
 okerreko lekua  
 zitekela izan,  
 pixka bat duda-mudan  
 egon eta gero,
- 7/ bi golpe atiari  
 eman zizkan: *da!... da!*  
 eta irten zanari  
 egin ziyon galde:  
 —“Gaspar Lizarralde  
*emen bizi al da?*”

---

Ikusi: “Colección de J. Manterola”, 35'garren orria, eskuz idatzia.

## PENETAN DARAMAZKIT (1)

1/ Penetan daramazkit  
eguna ta gaba,  
poz bat sentitu gabe  
¡au suerte billaba!  
gosaritzat talua  
eta bakallaba,  
bazkaitan katillu bat  
salda, ta sei baba,  
amalau jango eta  
bi sardin afaldu,  
¿batek ez luke obe  
sartzia soldadu?

2/ Urrikigarriya da  
nere izaera,  
golzero nai ta nai ez  
juan biar lanera;  
egarritutzen banaiz  
ura eratera,

---

(1) Manterola'k ala dio: "Entre los mismos originales se encuentran, en una cuartilla llena de enmiendas, estos versos; de escaso mérito y de un pesimismo desconsolador, creo que deben ser de los primeros ensayos de Vilinch, y dudo que se hayan publicado. (Izena "Penetan daramazkit", besterik etzun ta gerok jarria da, lenengo puntutik artuta).

nik orla zer..... (2)  
nezake atera?  
ezer kobratu ez ta  
osasuna galdu,  
¿ez det ondo egingo  
sartzia soldadu?

3/ Kontuz ibilli arren  
eta juiziyuan,  
iñor aberasten ez  
da ofiziyuan;  
¿ni lanakin ibilli  
beti sesiyuan?  
erremientak norbaiti  
erdi preziyuan  
edo kasik debalde  
al banizka saldu,  
biyartikan sartuko  
nitzake soldadu.

4/ Jaunak, ariyarazi  
ez liteke itzez,  
zein aspertua nagon  
onela bizitzez;  
beti negarrez eta  
penetan ibiltzez,  
jornal txikiyaren truk  
lanian aritzez,  
batek beti onela  
bizi biar badu,  
ez du galzki egingo  
sartzia soldadu.

---

(2) Está completamente ininteligible la palabra que completa este verso. (Manterola'k).

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 36'garren orria, eskuz idatzia.

## KONFESORIAGANA

Konfesorlagana  
juan zan Marzelina  
gero konfesa zedin  
artzera dotrina,  
baña guziz gorra zan  
Marzelina ori,  
etziyon kasik itzik  
aditzen iñori;  
apalzak beste gauza  
batzuen urrena,  
galdia egin ziyon:  
¿zein da seigarrena?;  
gaixuak nola zan ain  
gorrera aundikoa,  
galdetzen ziyolako  
¿zein da Jaungoikoa?,  
erresponditu ziyon  
al zuen lenena:  
da pentsatu liteken  
gauzik ederrena.

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 36'garren orria, eskuz idatzia.

## ASPALDIYAN JOXEPA (1)

1/ Aspaldiyan, Joxepa  
famatua zeunden,  
gu berriz ikusteko  
desiotan geunden,  
Ondarrabi aldian  
aditzen genduen,  
dama bertsolari bat  
nola bazeguen,  
zeñak Euskal-erriyan  
parerik etzuen.

2/ Egiyak ote ziran  
famaren ots ayek,  
bixitatu zindugun  
zenbait jakin zalek,  
amar edo amabi  
Donostiya-tarrek,  
ayekin batian zan  
bizar aundi arrek  
izkribatzen dizkizu  
zuri bertso abek.

---

(1) "Encontrado entre sus originales de su puño y letra". (Manterola'k).



3/ Ni bertsolariya naiz  
bañan det aditu,  
ez nitzaizula zuri  
ala iruritu,  
zuk orla pentsatzia  
ez da zer arritu,  
nere jakinduririk  
ez nuen argitu,  
zergatikan ez nitzan  
premiyan arkitu.

4/ Baliteke irixtia  
premiya orretara,  
agindu zenirala  
goguan det bara, (1)  
prestaturikan nere  
desiuetara,  
baldin dibertsiyo bat  
nai banuen para,  
etorriko zifñala  
Errenteriyara.

5/ Egizu naizunian,  
dama, etorrera,  
zuregan utzitzen det  
egunan aukera,  
ipintzen badirazu  
orrelako aukera,  
aprobetxatu gabe  
ez niteke gera,  
alkarrekin berriro  
mintzatuko gera.

---

(1) bara = bada.

6/ Arkitzen baldin banaiz  
orduan umorez,  
proga emango dizut  
lenagoko ordez,  
beste iñori bañan  
gustorago doblez,  
gero juzga dezazun  
ezaguera obez,  
ia bertsolariya  
al naizen edo ez.

*Bilintx*

*(Encontrado entre sus originales de su  
puño y letra)*

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 38'garren orria, eskuz idatzia..

## PAGINAS INEDITAS EN PROSA (1)

### I

*Zuk badakizu zierto, egiiyetan eta txit asko maite zaitutala, bañan alare zuk uste alako milla biderrez aundiyoago da zuganako nik sentitzen detan naitasuna, iñork sekulan sentitu ez dezaken añakua.*

*Neri etzait gogoratzen ez beste ezer, eta ez beste iñor; zu bakarrikan zauzkat beti goguan, minutu batian ere paltatu gabe, ala egunaz nun gabian. Zuk bakarrik betetzen dezu nere pentsamentu guziya.*

*Zu zera neretzat guziya mundu onetan. Zu zera nere osasuna, nere asnasea, nere bizitza, nere eliza, nere zerua eta nere gloriya.*

---

(1) Manterola'k ala dio: ...Cuatro son los trabajos de esta índole que he hallado entre los manuscritos de Vilinch: los tres primeros originales, y en los que el poeta derramó sus sentimientos amorosos, quizás como preparación para nuevas composiciones en verso, tal vez simplemente para dar desahogo a la pasión que encerraba su pecho. El último es un capítulo de leyenda, que por el asunto y por su corte especial parece ser traducción.

*Jaungoikoak berak bi eskuakin jaso ala naitasun jarri zuen nere biotzian zuganako.*

*Eguzkia ispilluan bezela sentitzen eta ikusten zaitut nere animan; izarra urtan bezela nere pentsamentuan, eta niniya begiyan bezela zauzkat nere biotzaren erdian.*

*Ez du txoriyak sentimentu geyago artzen, bere umeakin zeukan kabia norbaitek ostu dion meriyo, palta arkitzen duen denboran, nola nik artzen detan zu merezi izateko diña ez naizela gogoratzen zaitan bakoitzian.*

*Pentsamentu neretzat danik tristiena orrek ixuri arazi dizkitan malkotan estali liteke mendi bat.*

---

Ikusi: "Colección de J. Manterola", 43'garren orria, eskuz idatzia.

"Cancionero Vasco - J. Manterola, 2.<sup>a</sup> serie, Tomo I, Abril de 1878".

"Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>'ren etxean", Euskal-Esnalea'k argitara-arazia.

Iru auetatik lendabizikoan, Manterola'ren bertso bilduman, 41 ta 42'garren orriak falta dira. Norbaitek artu ta indarrez atereak dira. Orri oyetan zeuden zati auk, lenengoa ta bigarrena oso osorik ta irugarrenaren erdia, "...batian, sentitzen det barrena..." dion ortaraño.

Urrengo iru zatiak ere emen aitatu ditugun tokietan arkitzen dira, beste iñun ez, guk dakigunez beintzat. Beraz, bakoitzean aitatzerik ez du merezi, ta ez degu egingo.

## II

¡Maitiago zaitut...! ¡txit maite zaitut, ezin esan aña maite zaitut! ¡Jesus! ¡au maite zaitut! ¡Badakizu zergatik egiten detan, zu zerala meriyo, ainbeste negar? Zergatik ni zuretzako argizaya naizen, eta zu neretzako eguzkiya zeran, eta eguzkiyak argizaya nola ez du urtuko?

Arduaren edo beste zerbaiten espiritua ¡ikus! al dezu beñere su eman ta garretan?

¡Ura gar polita egiten du!

Begira zazu bada: biyotz nerean dago amoriyuaren zumua, amoriyuaren espiritua biyotz nerean dago, eta nola zu zeran nere eguzkiya, zure begiratuak neretzako eguzkiyaren errañuak dira, eta errañua oyek piztutzen dute nere biyotzeko amoriyuaren espiritua ori, eta zure onran garretan dago, gau ta egun, eta lenago ilko naiz ni, au itzaliko dan baño.

Zu zera nere aingeru guardakoa. ¡O! ¡Zer ona zeran neretzako.

¡Ni penatzen naizenian, zu, nik merezi gabe, nitzaz kupitu egiten zera!

Berinkatuak izan ditezela bein eta milla bider, zuri dizutan naitasuna dala meriyo, pasha ditutan penak, zuri dizutan amoriyuagatik izuri ditutan malkuak, zergatik guztiyak me-

rezi dituzun, eta geyago ere bai, eta milla bi-der geyago, eta oraindikan ere geyago. Eta orla ta guzti're, etzaude niganako ezere zorretan, zergatik zuk itz batekin, begiratu batekin, tontorka ta gañezka pagatzen nazu.

¡Noiz iritxiko ote da eguna nerea izango zaitutana!

¡A zer kuidaduakin gobernaturko zaitutan!  
¡a zer bizi-modutzua eman biar dizutan! ¡A zer alegiñak egingo ditutan zu kontentu irukitzeko!

Mayian zu izango zera lenbizi serbitua. Zuretzako izango da gauzik onen guziya.

Esnea degunean zuretzako tela, mamiya degunean zuretzako gaña, eta sagarrak, udariak, muxikak edo zerbait orlako degunean, zuretzako piñenak, zuretzako aundiyenak, zuretzako ederrenak. Eta inxaurrak ditugunean, nik puskatuko ditut, eta azalak atera ta mamiyak jarriko dizkizut aldamenean; eta gaztañak ditugunean, nik txurituko ditut zuk jan bear dituzunak.

### III

Esan zadazu, Juanatxo: zuregana natorre-  
nian, etxe au ikustiakin bat, ¿zerk egin araz-  
ten diyo nere biyotzari balantz?; eta barrena  
sartzerakuan errespeto aundiz, eliza batera  
sartzen banitz bezela, ¿zerk eramán arazten dit  
eskua burura, txapela erazteko desiota, zer  
egiten detan ere azturik? Eta zuk arpegira  
begiratzen dirazun denboran ¿zerk begiratu  
arazten dit lurrera?; eta izketan asitzen ba-  
naitzazu, ¿zerk ematen dit toteltasun ura?

Ez dakizula diyozu, eta ojala bazeneki: ba-  
ñan zuk jakin ez arren nik dakitan kasuan,  
¿naizu kontatzia?

¿Bai?

Ea bada. Jarri zaite aditzen.

¿Ikusi al dezu beñere baratza batian, bere  
tzortenaren punta-punttan, graziyazko pa-  
txaran koloka dabillen lore bati aize goxozko  
baga batek nola eragiten diyon balantz?

Modu artara bertara nere biyotza dago es-  
perantzaz medar baten gañian, eta etxe au  
ikusten detanakin batian sentitzen det barre-  
na nola sartutzen zaitan poztasunezko baga  
bat, zeñak eragiten diyon nere biyotzari ba-  
lantz, aiziak loriari bezela.

Sartzen naiz etxe ontara eliza balitz bezela errespeto aundiz, zergatik etxe ontan bizi dan aingeru bat nere sentira guziryakin adoratzan detana, eta ikusten zaitutan aldiro aztutzen zaitkit beste gauza guztyiak eta etzait gogoratzen zu adoratzia baizik; argatik eramaten det esku bat burura txapela erazteko desio-tan, zer egiten detan ere azturik.

Illargiyaren argiya balkoi bateko kristaletatik gela batera iragazten dan bezela ixil ixilik eta gozo gozo, zure begiratuaren gozotasuna iragazten zait begiyetatik biyotzera, biyotzetik banatzen zait sentira guziryetara, lore ontzi bateko buketaren usaya sala guziryen banatzen dan modura; opiyua balitz bezela lo-arazten dit kordia, kentzen dizkit zuri begiratzeko indarrak, eta argatikan begiratzen det lurrera, zuk arpegira begiratzen dirazun denboran.

Eguzkiyak landariari zumua eraten diyon gisara, nere begiyak eraten dute zugandik amoriyo gozo bat, zeñak utzitzen nauben orditu banitz bezela; amoriyozko orditasun arrek ematen dit toteltasun ura zurekin izketan astian.

Ortatik kontura zintezke zuri bakarrik dizutan naitasun, biyotz nerian orlako sentitasun eztiyak mugi-arazten dituen, zenbateraño izango dan aundiya eta zenbateraño purua.

Zu zera munduan maitiena zaitutana, zu zera maitiena izatia merezi duena, eta zu zera, neretzako beintzat, munduan dan miraberik politena.

Berezi ditezela beste milla arki litezken politenak, jarri zaitzatela danaren erdi erdiyan, eta izango zerare marrubi bat milla masustaren erdiyan jarriya, iruriko dezu izar bat argi milla jiran dituzula, eta ainbeste apirillen erdiyan zu bakarrik izango zera mayatza.



#### IV (1)

*Gisa artan dago Sakripante zutikan, Anjelika bere mentura tristiaren testigu duela; negarkara dago, ez ainbeste besuan eta oin batean dauzkan oñaziagatik, nola menderatua izanak ematen diyon damutasunagatik.*

*Arpegiyan lotsa ezagun zitzayola, etartzen du Anjelikaren laguntza, eta baldin dama eder arren konsueluak izan ez bazuten danik penatuenari ere itz eragiteko birtutea, uste det oraindik mututua egongo zala.*

*—Pakeztu zaite, jauna, —esaten diyo—, erortz ori bakarrik itxeki biar zayo zure zaldiyaren erbaltasunari; biarraguak zituen erre-pausa eta janariya gonbatia baño. Ez det uste*

---

(1) Manterola'k ala dio: "Un Capítulo de Leyenda (Encontrado entre los papeles de Vilinch de su puño y letra)". (Bertso-bilduman). "Este trabajo constituye indudablemente la traducción de algún capítulo de leyenda, del que no he podido hallar otro rastro alguno entre los manuscritos de Vilinch. (Cancionero Vasco).

Euskal-Esnalea'k argitara-arazitakoak, berriz, alaxe dio: "Idazti au erderatik biurtutakoa da: Ariosto'k egindako **Orlando furioso**'ren lenbiziko eresitik artua dago.

gañera, ezagutzen ez degun orrek batere gloriarik irabazi duenik topara onen bitartez, bada batetan egin duen erretiradak esaten digu nola ezagutu duen garaituko zenukela.

Konsolatzan dagokiyon bitartean ikusten dute datorkiyotela mandatari gisako bat zaldi txar baten gañian; tronpeta bat darama zintzilik, iruri du dagola larriturik eta kantsatua.

Boza irixi liteken tamañara allegatu bezin laster, galdetzen diyo Sakripanteri ikusi al duen pasatzen zaldun bat armadura txuriz estaliya kaskuaren gañian kolore igualeko luzmazko ttondor bat duela.

—Onduegi ikusi det —erantzun du kristau-*ezak*—, artzek utzi nau gisa ontan. Esan zadazu nola duen izena billatu al dezatan.

—*Txit gusto aundiz* —esan diyo mandatariryak—. Jakin zazu ezik, izan zerala umildua bildurgarriya bezin ederra dan mirabe gazte batengandik, eta esateko bere izenez, zeña dan *txit* sonatua, esango dizut bitoriya arapatu dizuna dala Bradamanta.

Itz oek esatiakin bat bridak irriyatu ta irrutitzen da mandatariya, utzirik sarrazenua umildurik eta sekulan bañan nastutuagua.

Triste eta lotsaturik pentsatze bakoitzian emakume baten besuak ain errearki garaitu zuela, itzik egin gabe iyotzen da Anjelikaren zaldi gañera, bera jartzen du gañankan, eta badijua toki paketsuagoko baten billa.

Ozta ibilli dituzte lauen bat milla kana, nun beste soñu batek arretzen duen basoko ixiltasuna, ikusten dute zaldi kementsu bat urrez bordatutako eskutarma bat gañian zuela, errollak eta lubakiryak saltatuaz, pasariuan arbolak beren adar eta guzi puskatzen zituela.

—Nere bista iragaz baliteke arbol oyen eta lañu lori orren tartetik —diyo Anjelikak—, orren ots aunditsu igasi dijuan zaldi ori Bayardo da, bai, etzait dudarik gelditzen, uraxen

da bera da, eta badiruri berariyez datorrela, zaldi onen jaso-al eskasak jartzen gaituen larritasunetik kentzera.

Saltatzen du Sakripantek lurrera, arrimatzten da zaldi arroante arengana, eta nai diyo bridetatik eldu, bañan Bayardo bueltatzen zayo atziaz eta tiratzen dizka pullankazo bi, kobrezko mendi bat auts biyurtzeko aski ziranak.

Suerte gabeko prinzipia doi doi libratzen da, bañan orregatikan, egun batzuek kanpoan igaro dituen bere jabia berriro ikustarakuan, zakur leyal batek izan lezazkiken poz eta umiltasunakin berakin, zaldi noblia alderatu zayo Anjelikari; etzayo aztu nola kontu egiten ziyon Abraken, Anjelikak Reinaldo amatzen zuen denboran, bada bein bañan geyagotan izandu ziyon jaten ematen.

Eusten diyo Anjelikak brida batetik ezkerreko eskuakin, eta eskuyekoarekin palakatzen dizka petxuak eta lepua.

Orduan Bayardo miresgarrizko somaz doaitua, dago geldi eta ardiya bezin umil.

Sarrazenuak lipar ontan saltatzen diyo bizkarrera eta estutatzen du indarrez. Anjelikak uzten du bere zaldiya eta ixirtzen da Sakripanteren atzian; bañan begiratzen dute batetan arma ots aundiya datorren toki batera, zaldun bat guziki armatua berengana dator korrika, eta dontzella ederrak kolera eta etsimenez beterik ezagutzen du Aimon-ko dufkiaren semea dala.

Umant arrek maitiago du Anjelika bere bi-ziya baño, eta Anjelikak berriz ez du ikusi nai begitan, usuak mirotza bañan geyago.

Orregatik, izan zan denbora bat zeñetan maitatu zuen Anjelikak Reinaldo, eta orduan Reinaldok etzuen ikusi ere nai; orain arkitzen dira oso mudatuak.

Sorgin iturri bitako urak egiyaztu milagro au, bata bestiaren onduan irriyatzen dira Ardenasen: batak betetzen du biyotza amoriyoz-

ko desioz, eta bestetik eraten duena erortzen da ajolagabetasun guzizkuan.

Reinaldok eran zuen lenengotik eta daka amoriyoz erretzen. Anjelikak bestetik ito zuen bere egarriya eta orain aren biyotzak ez daka Reinaldoganuntz gorrotua eta bekaitza besterik.

Zalduna ikustiakin bat geratzen da donzella ikaraz mututurik, galtzen ditu puntu artan bere begiyetan erregintzen ziran alaitasuna eta distina, oroyatzen zayo kopeta eta dardarizazko bozakin erregutzen diyo Sakripanteri iges egin dezala beste gerrariyari itxogon gabe.

—¡Ain gutxiyan dakazu nere baloria —erantzun du sarrazenuak—, nun duda egi ten dezun eskudatuko zaiturala? ¡Aztu al dituzu Albrageko batalla eta zu salbatziagatik, kasikan armarik gabe, Agrikan eta bere ekerzito guziyakin batitu nitzan arrats ura?

Anjelikak, zer egin ez dakiyela, ez du erantzuten, bañan Reinaldo alderatu zayote bitartean, eta aurrera dator zirkazianua meartuaz, bada ezagutu ditu zaldiya eta emakume ainbeste adoratzen duena, eta berriro jayotzen zaizka biyotzian amoriyo eta koleraren su guziyak.

Bañan urrengo kanturako gordetzen det naikidari arroante ayen arteratu zan gudaren kontaera.

## DOMINGO KANPAÑA

Domingo Kanpañari botatako bertso famatua oso argiz jantzita gelditzen da Dunixi jaunaren erderazko idaz-lan ori dala-ta. Orregatik oso osorik jarri degu emen.

*Dejé al lector, en el anterior "croquis", frente a un caserío del alto de Ixturin, prometiéndole el relato de cómo, en aquel lugar, surgió hace muchos años una bella poesía.*

*El caso es sencillo de contar, pero, antes de pasar adelante, tengo que consignar aquí una aclaración oportuna.*

*En mi reciente conferencia dedicada al poeta donostiarra Indalecio Bizcarrondo ("Bilintx"), con motivo del centenario de su nacimiento, comenté con admiración la extraordinaria agudeza de una de las sátiras de nuestro vate, aquella tan popular en todo el país euskeldun, que se titula "Domingo Kanpaña" y en la que con cuatro rasgos certeros se traza una caricatura maravillosa del personaje de este nombre.*

*Al poner de relieve, en un inciso de la charla, el mérito para mí incomparable de esta poesía, por su fuerza gráfica y su rima penetrante, apunté con timidez la hipótesis de*

que pudo, según creencia bastante generalizada, haber nacido por espontánea improvisación de "Bilintx" y no, como yo entendía (guiado por la perfección literaria de las estrofas), por gestación escrita. Añadí entonces que si la verdad histórica era la primera, había de calificar de insólito el ingenio capaz de aquel brote imaginativo.

Terminada la conferencia, un veterano donostiarra (1), noble aficionado a nuestras tradiciones y archivo viviente de recuerdos locales, se me acercó y me dijo:

—"Domingo Kanpañá"-rena, bat batekua izan zan. (2)

—¡Bai?

—Bai, jauna. Nun da nola, nik esango dizut. Ikusi zuenak kontatu zidan eta...

Me interesó, naturalmente. Quedamos citados. Unos días después mi amigo me relataba la historia. La sabía él por "Pikolin".

—¿Conoció usted a "Pikolin"?

—¿"Pikolin"? ¡El profesor...?

—No, hombre; el fajero, un fajero viejo, un tal Iraeta, de la Calle Mayor... del tiempo de "Bilintx"!

En resumen: mi amigo conoció y trató a "Pikolin", aunque no alcanzó a conocer a "Bilintx". Ahora bien, "Pikolin" el fajero y "Bilintx" el estanquero, eran buenos camaradas. Indalecio, hombre sencillo, alternaba de buen grado con el peón, y con ambos se juntaban sin melindres en la donostiarra democracia de las sidrerías, democracia jocunda y niveladora como ninguna, otros personajes mejor acomodados de fortuna que "Pikolin" y "Bilintx".

---

(1) Don Enrique Otegui, de la antigua casa "Argin-Txiki", de la calle Mayor. (Dunixi-ren oarra).

(2) Euskerazko zati bakoitzaren ondoan, erderaz dio len euskeraz esana. Orrelakoak kendu egin ditugu.

Completaba en ocasiones la cuadrilla un tipo bastante original: Domingo "Kanpaña".

Domingo era un obrero de la litografía de Fidel Múgica, antecesor de Victoriano Iraola, cuyos talleres de la calle Narrica, esquina a la de San Vicente, muchos de mis lectores llegaron a conocer. Pues bien; entre la funciones que en la litografía competían al mozo "Kampaña", la más importante consistía en el cuidado de la fuerza motriz del establecimiento. En vísperas, todavía, del motor de gas y de la dinamo, la propulsión se reducía en casa de Múgica a un modesto mulo blanco que bien podía equivaler a un caballo-vapor.

Domingo, pues, cuidaba de la "central" de energía. Alimentaba al buen mulo, lo engrasaba, regulaba sus revoluciones por minuto, lo bañaba en el Urumea y, con frecuencia, terminada la común jornada, jinete y cabalgadura paseaban sus aplomadas y superpuestas anchuras por las calles de la parte vieja.

Tanta afición le tomó "Kanpaña" a la equitación en mulo, que se habituó a utilizar la montura en toda ocasión y lugar.

Una tarde, "Bilintx" con "Pikolin" y otros cuantos, saboreaban en paz una regular sidra en el caserío "Santa Teresa", situado, como ya se ha dicho, en el alto de Ixturin. "Bilintx" (cuya vida, por lo que se advierte, no debió de transcurrir tan dolorosa como escriben sus biógrafos), reunía a los primores de su vena poética una reconocida pericia culinaria. Su especialidad era la preparación del "arrai-gorri". Aquella tarde, precisamente "tenía" "arrai-gorri" en Santa Teresa la cuadrilla de "Bilintx".

El poeta, en el interior, atendía al último hervor de la cazuela, con el aliño del artista que da los últimos toques a una composición, cuando los camaradas de fuera divisaron con asombro, por la parte de "Pintore", la recia

figura del amigo" "Kanpaña" montado sobre el no menos recio mulo, que se acercaba camino de la sidrería. Lo nuevo y extravagante del caso fue al instante comunicado a "Bilintx":

—¡Aizak, i!... ¡Domingo Kanpaña mando gañian!

*Bizcarrondo asomó a la portalada con las manos pringadas.*

—¡Bota akiyok bertso bat, Indalexio!

*En aquel momento llegaba Domingo, y "Bilintx", de en medio del corro, frente al rústico grupo ecuestre jamás visto en sidrería, soltó de súbito, a mulo y jinete, los diez versos inmortales de su sátira famosa:*

Mando baten gañian  
Domingo Kanpaña,  
ez dijoa utsikan  
asto orren gaña;  
azpian dijoana  
mandua da, baña,  
gañekua ere bada  
azpikua aña:  
¡mando baten gañian  
bestia, alajaña!

\* \* \*

*La crónica de "Pikolin" referida por Otegui es escueta. Termina aquí. Nada dice del efecto causado en el sujeto de la poesía y en el auditorio por la improvisación de Bizcarrondo. Podemos conjeturarlo, sin embargo, mirando a la pieza e imaginándonos los personajes y el ambiente. No aclara, pues, si el caballero "Kanpaña", a pie o montado, respondió a la acometida. Respecto de esto bastará recoger, para consignarla sin más garantías, la versión popular que dice que Do-*



mingo respondió, y que lo hizo en verso, por no ser menos, en los términos que siguen:

Indalexio, Indalexio,  
Indalexio Moko,  
uste al dek, uste al dek  
ez autala joko?

A lo que Indalexio, herido a su vez en lo sensible de su defecto físico, replicó contundente, apeándose ya de toda gala poética:

Berriz esaten baidak  
Indalexio "Moko",  
ezurak autsi arte  
ez aut nik lagako.

Es de creer que la cosa no pasó a mayores. Que Domingo Kanpaña se apearía del mulo; que "Bilintx", por su parte, descendería del Parnaso y que, juntos con "Pikolin" y demás alegres compadres, pasarían a rodear la humeante cazuela de los "arrai-gorris".

Dunixi  
(Dionisio Azcue)

("El Día", eguna ez dakigu)

---

Ontan ez gera sayatuko bertso au zenbat tokitan arkitu degun adierazten. Lan luzeegia izango litza-ke.

INDALECIO BIZCARRONDO  
( B I L I N T X )

*“Bilintx” derizitzayon gizon bat zan Donostiyako semea.*

*Nola Jaungoitiak mundu onetan gizon bakoitzari doai bana bialdu diyon, oni eman ziyon bertso eta puntu sortzekua zan guztiz bikaña. Berez pobrea zalarik, zuen izketan aberastasunezko buru edo zentzoa.*

*Euskaldunak, beste atzerritarrak gorde dituzten modura bere seme onen kondaira, kontu, lan eta beste grazi doaiak, gorde bear ditugu gure maisu onaren egiñak, ala al bada ezertan utsik egin gabe; nai nituzke nik argitaratu al ditudan edo goguan dauzkatanak. Arren lan aundiyak edo itz neurtuak ispillutzat agirian daude, bañan kontutxo edo “txis-tiak”; ez aztu-lekuan geratzeko, asmoa artu det eta ara zeintsu edo nola diran.*

I

*Mutil-koskorra zala, zebiltzan bein soka-saltuan eta usterik gutxienian etorri zitayoten zelatari edo aguazilla, zeñak sokari eldu eta*

orrekin batean mutil-koskor guziyak eraman zituen illunbe edo presondegira.

Nola geyenak aberats aurrak ziran, illuna-barrean asi ziran marruaz ojuka:

—“¡Ai ama! ¡ai aita!”

Bilintx orduan (amabi urtekoa) zan arlo-te xamarra eta ez zitzayon ainbeste ardura ango egoeragaitik, eta alakorik batean denen aurrean jarririk diyo:

—“Mutillak, zaudete ixilik, bestela kartze-leroa etortzen bada, beso ondotik elduta denak kanpora bigalduko giotzik”.

Lendabiziko bertsoak orduan jarri zituen aguazillari; ara azkeneko puntuak nola diran:

Ikusi zuenian  
soka ona zala,  
azkar eatzi ziyon  
bere azkazala.

## II

Aunditzera abiatu zan arotzeyan. (Lanera-ko etzan ain argiya, bañan nagusiak zeukan gustora, aldiyan bein berekin par batzuek egi-tiagatik; nagusiya zan Arzuaga).

Onekin batian aritzen ziran lan-leku artan beste asko, eta ayen artean bi oso umore onekuak; bat zan Domingo Kanpaña eta bestea Erramun Moko.

Egun batian joan zan lanera eta nagusi onak diyo:

—Bilintx, i gizon-modura zintzo etorri aiz lanera, baña Domingo Kanpaña gandul arrek, gaur goizian egun laurdena galdu dik; ezagun dek astelena dala.

Au aditzian bat diyo onek:

—¿Nagusia, utziko al dit piska bat irtetzen emendik eginkizun batera?

—¿Zer da, ik ere astelena al dek?

—Ez, jauna, astearte bespera.

—Ua bada, bañan aguro etorri.

Bilintzek ere lanerako gogorik etzuen eta aitzekiyakin atera zan, zeña egun guziyan etzan lan-lekura jiratu; oso umore onez pasa zuen eguna. Urrengo goizian kandela bat piztu eta baztar bat miratzen ari dala, alderatu zitzaion nagusia eta zart ostikoaz joaz diyo:

—¡Ai erropa, zer egiten dek or!

—¡Pagu ederra ematen dit beorrek!

—¡Zer dek bada?

—¡Ez al daki, ez al daki bada... emen ere ez dago...

—¡Baña, zer?

—¡Zer? Atzo esan ziran Domingo Kanpañak egun laurdena galdu zuela; erri guziya mira nuen eta ez nuen billatu, eta emen ari nintzan orain kofre tartien batian ote dagon billa... ¡Esker ederra ematen dit! Ez du baliyo fiña izateak mundo onetan.

Nagusiya algaraz asi ta barkatu ziyon pekatua.

### III

Astelen batian, komoda bat tzarolatzeko agindu zuben nagusiyak Erramun "Moko"-ri eta Bilintxi; abek jarri ziran komodaren alde banetandik aurrez-aurrez, eskuan tanpoya zutela.

Ontan sartu zan emakume bat, ayek arki ziran lekura, eta ikustean ayetako bat Indalezio zala eta au ezaguna izanik, galdetu zion:

—Aizazu, Indalezio, ¿zer da ori?

—¡Au? komoda, eta ori, "Moko" da.

### IV

Kayean zegoala bein lagun batzuekin arrantzan ari ziranari begira, inguratu zan bertara erdaldun bat galtza nabarben batzuekin,

zeñak zituben arrai gorri-gorri aundi batzuek, eta au ikustean diye Bilintzek arrantzan ari ziranari:

—¿Zertan botatzen dezute orren urruti apa-rejua?; botayozute amua erdaldun orren gal-tzari eta naiko arrai-gorri arrapatuko dezute bertatik bertara.

## V

Jai arratsalde batean elkartu zan Ernani-n bertsolari batekin; bertsolari onek zuan lagun begi oker bat. Asi ziran bertsoetan eta nola Bilintzek etorri aundiya zeukan, beriala menderatu zuben beste bertsolariya.

Begi okerrak ikustean laguna gain-bera zi-joala, ala diyo:

—¿Zanpatuko au “Moko-okerrak”!

—¿Zer, ni Moko-okerra? ¿Zuri bai iruritu, oker begiratzen dezulako!

Pepe Artola

“Baserritarra” 69 (25-5-1907) ta 71 (22-6-1907)

## BILINTXEN ESAERA BAT (1)

Loreziyo kaleko  
kantoi kantoyian  
anai arrebak ziran  
elkartu batian;  
arrebak igarririk  
zeukala ark dirua,  
eskatzia zitzayon  
etorri burura;  
esan ziyon frantzesez:  
—“Donemua le artxan”.  
—“Ua nere boltsara  
eta andik artzan”.

*Mayo 3 de 1886*

*Publicada en La Galerna el día 27 de Julio  
1890.*

---

(1) Pepe Artola'ren eskuz idatzietatik artua.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso  
asko.

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso  
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui  
batzuk.

- 6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*  
RAMUNTXO
- 7.—*Ramos Azkarate*  
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—*Antero Apaolaza*  
PATXIKO TXERREN. (Nobela).
- 9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*  
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—*Bertsolariak*  
ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA (1962)
- 11.—*Piarres Larzabal*  
BORDAXURI
- 12.—*Bilintx*  
BERTSO TA LAN GUZIAK.





1027899

JB-889

JB

IMPRESO EN ESPAÑA